

GUaiXe.eus



Etxarri Aranatz,
santurik
santu



Sakanerria >> 6

Altsasuko mendi bizikleta
zeharkaldiaren 21. edizioa
igandean izanen da. Bi ibilbide
aukeran: 46 eta 34 km-takoak



Kirolak >> 12



Otsoportilloko lezean dauden hezurdurak norenak diren identifikatzeko aukera izanen dela jakinarazi du Etxeberria forentseak. Iberoko hobian uhartear bat identifikatu dute. NEREA MAZKIARAN

Identifikazioetarako aukerak

>> 5

Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren bilera

Asteartean, 17:00etan, Mank-en Lakuntzako egoitzan elkartuko da balantzea egin eta plana egokitzeko

>> 7

Maria Markotegi sormen lehiaketako sariak jabeen esku

Poesia, narrazioa eta komiki sailetan 26 sari banatu dira eta beste 5 euskaltegiko ikasle eta mintzakideen artean

>> 15

Bisonteak berreskuratzea, mahai gainean jarritako aukera

13 altsasuarrek elkar-
tea sortu dute

>> 6



Sakandarrak
Idomeniko
errefuxiatu
eremuan

>> 9



Olatzagutia
pintoreen
modelo
bihurtuta

>> 15



Uharteko
Galtxorratx
elkartearen 10.
urteurrena

>> 10



Berrikuntzak
Lakuntza-Aralar
mendi lasterketan

>> 11

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



ZORIONAK Eki eta Unai.

Egun ederra izan deza-zuela. Badakizue gu han egongo garela dena ematen!!! Muxu handi bat. Irurtzungo lankideak.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Garagarriak

10-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Elorri. Garagarriaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Urdiaingo plazan.

Un tal Jethro. Garagarriaren 10ean, ostiralean, 23:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan.

Against you, Bastardix eta Batek daki. Garagarriaren 11n, larunbatean, 23:30ean Urdiaingo plazan.

Etxarriko abesbatza txikia. Garagarriaren 12an, igandean, 18:30ean Etxarri Aranazko Andra Mari ermitan.

Dantza

Galtxorratx, X. urteurrena. Garagarriaren 11n, larunbatean, 11:30etik aurrera Uharte Arakilen.

Fusion arte. Garagarriaren 11n, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Iskiza Sakana gimnastika erritmikoko kluba eta Erkudengo Ama abesbatza.**

Dokumentalak

Axio. Garagarriaren 10ean, ostiralean, 21:00etan auzatea eta 22:00etan proiektzioa Ziordiko txipudian.

Solo los muertos vuelven a casa. Garagarriaren 11n, larunbatean 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Ondoren **Ali Can** zuzendariarekin solasaldia.

Mendi irteerak

Zunbeltz-Irantzu. Garagarriaren 12an, igandean. **Iratxo mendi elkartea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Azanza-Altsasu. Garagarriaren 11n, larunbatean, 8:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.** 107 km.

XXI. Altsasuko zeharkaldia. Garagarriaren 12an, domekan, 9:00etan Altsasuko Foru plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.** 50 km.

Erakusketak

Nafarroa 360. Garagarriaren 14ra arte,

astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Javier San Felipe Larrea.**

#vivas nos queremos. Garagarriaren 15era arte Olatzagutiko Kamiogaina jubilatutako elkartean. **Mujeres grabando resistencias kolektibo.**

Ingurumena Altsasuko institutuan. Garagarriaren 15etik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasu BHI.**

Hitzaldiak

Toki garapenerako mintegia, Azaro fundazioa. Garagarriaren 15ean, asteazkenean, 16:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlaria: **Ainhoa Arrizubieta Zabala.**

Bizitza akaberako erabakiak. Garagarriaren 15ean, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Hizlariak: **Soco Lizarraga eta Idoia Abinzano.**

Pintura

IX. Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketa. Garagarriaren 12an, domekan, 9:00etatik aurrera Olatzagutian.



Tailerrak

Sendabelarrak. Garagarriaren 11, larunbatean, 9:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era eta garagarriaren 12an, igandean, 9:30etik 13:30era Arbuzuko kanpineko Amari aretoan. **Silvia Akerreta.**

Etxarriko bideen eta ahuntzetxe aterpearen ordenantza. Garagarriaren



Ahal Dugu

Hautagaiak azokan. Garagarriaren 15ean, asteazkenean, 11:00etan Altsasuko azokan.

EH Bildu

Bakartxo Ruiz. Garagarriaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan. Herritarren galderak erantzunen ditu.

Ekitaldia eta auzatea. Garagarriaren 16an, ostegunetan, 19:30ean Irurtzungo plazan.

Irati Jimenez zerranda-kidearekin elkar hizketa poteoa. Garagarriaren 16an, ostegunetan, 19:30ean Altsasuko Foru plazatik hasita.

15ean, asteazkenean, 18:00etan Etxarri Aranazko udaletxean. Parte-hartze prozesua.

Bestelakoak

Burunda ekialdeko gazte eguna. Garagarriaren 11n, larunbatean, 11:00etatik aurrera Urdiaingo. **Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo gazte asanbladak.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Arbuzuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren bilerara. Garagarriaren 14an, asteartean, 17:00etatik 18:00etara Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

>> Altsasu

Kurdistango lehen eskuko berri

Larunbatean 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean dokumentala eta ondoren Ali Can zuzendariarekin solasaldia

Askapenak antolatuta Solo los muertos vuelven a casa dokumentala ikusteko aukera izanen da. "Turkian dagoen erresistentzia kurduaren erretratua" jasotzen ditu lanak. Europak milioi bat exiliatu kurdu ditu; haietako asko preso sartuko zituzte-lako Turkiara bueltatu ezin duten errefuxiatu politikoak. Europako herrialde askotan ere gerri-lari kurduak terroristatzat dituzte eta haien atzetik dabilta. Askapenaren bidez proiektatu-ko den dokumentalean exiliatu horietako batzuen berri ematen da eta haien bisitatu ezin duten Kurdistango tokietara eramaten du ikuslea.

Kurduak "Turkiako estatuaren kontrako politika autoritarioari egindako erresistentzia" erakusten du. Esaterako: Nusayingo alkatea, bozen %80arekin aukeratua izan zena, eta poli-ziaren eta gobernuaren etengabe-ko presioak dituenak; Pozantiko espetxean haur eta gazte- en kontrako tortura sistematikoa agerian utzi zuen kazetaria; Parisen 2013ko ilbeltzean erail- dako hiru emakume ekintzaile kurduen hilobira bisita... "Horre- tan guztian, askapen mugimen- duarekin egiten dugu topo, ze- naren oinarrian ideal demokra- tikoak, multi-etnikoak, feminista eta kurduen kultu- raren eta hizkuntzaren defen- sa baitaude.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: **Eneida**

Gaurko gaiak:

- Sergiok eta Amaiak Idomenin bizitakoak
- Axiori buruzko dokumentalaz
- Uharteko Galtxorratx elkartearen 10. urteurrena

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Ogia, elikagai osasungarria

Jaki preziatu honen lanketan etengabeko berrikuntzan ari dira bertako okindegiak

AMAYA

948 562 205

Ogiaren prozesua

80 urteko esperientzia daukagu ogigintzan, eta hirina, ura, legamia, gatza eta ama orea dira gure funtsezko osagaiak. Komeni da ogiaren orea harrotu eta berehala pisatzea eta zabiltzea. Ogi motaren arabera prozesua ezberdina izango da.

Ogien eskaintza

Guk hiru ore ezberdin egiten ditugu eta horien arabera ogi mota ezberdinak ditugu: ogi harroa, Golierrizena; txapata, opil antzekoa; eta

beste hainbeste ezberdin. Azken boladan 24 orduko harrotze prozesua duen ogia egiten ari gara, gehigarririk gabekoa. Hanburgesetarako eta denda zein tabernetarako beste ogi mota bat ere badugu.

Gozotegia

Kroasantak, napolitanak, suizar opilak, pastelak eta tartak, bizkotxoak, erroskillak, palmera integralak eta madalenak. Hauek beste prozesu ezberdin bat dute.



LA VITORIANA

948 564 298

Ogiaren prozesua

Aurreko gauean ogien orea ekartzen dugu eta hemen harrotzen jartzen dugu, harrotzeko dugun makinan. Egunean zehar ere harrotzen dugu. Hemen ogiari markak ezartzen dizkiogu, batzuek eta besteek ez baitute marka berdina. Dendako labearekin amaitzen dugu prozesua.

Ogien eskaintza

Artozkoak, integralak, espeltazkoak, fibradunak, zekalezkoak, bagetak, sobatuak, txapatak, zerealezkoak eta etxezkoak. Azken

hauek, Gasteizen zoruzko labe batean egiten dituzte eta guk amaitzen ditugu.

Gozotegia

Eskaintza zabala daukagu, kroasantak, berlinak, napolitanak, bonbak, lazitoak, madalenak, palmerak eta beste. Inailera arte %50eko deskontarekin salduko ditugu 18:00etatik 20:00etara. Enkarguz tartak, ijito besoak eta Galiziako enpanadak ekartzen ditugu. Eta egun berezietan dagozkienak: San Blas opilak, erregetako erroskoak...



PORTUKO

948 563 822 · 948 460 988

Ogiaren prozesua

Ogia ekoizteko modua lehen erabiltzen zena da, legamia, hirina, ura, gatza eta ama orea. Gainontzeko produktak freskoak dira, astero erosten ditugu. Harrotze prozesua eta tenperatura ezberdinekin jokatuz mota askotako ogiak sortzen ditugu.

Ogien eskaintza

Hiru labe ezberdin daukagu eta bakoitzak egosteko modu bat du, haize beroarekin edota harriarekin. Haga normala, baserriko ogiak,

integralak, zereal askotari-koak, sobatuak, moldekoak, artozkoak, olozkoak, 24 orduko harrotze prozesukoak, eguzkiloak, espeltazkoak, hanburgesentzat ogiak eta mahaspasadunak eta intxaurdunak.

Gozotegia

Egunean egindako napolitanak, erroskillak, madalenak, esnezko opilak, bizkotxoak, kroasantak, karakolak... Aldez aurretik eskatuz goxuak eta ijito besoak daukagu. Egunean eguneko ogia nahi baduzu gurea erosi!!





Baloiaeren heroiak

Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Futbolaren herrialdean baloia errege. Amaitu ziren amaitu beharrekoak, oporretan daude jada aitzinako greziarren heroi haien antzera, odolean jainkotasun apur bat duten haietako gehienak. Pilarreko Amabirjina edo Macarena bera ere atzean utziko luketen jarraitzaile eta sinisdunak biltzeko kapazak dira

kirolari hauek. Badute beren estanpita eta guzti gure haurren eskuetan. Garai bateko limosnen moduan, gurasoen sosa badoaz errekatik "ídolo", "super-crack", "balón de oro" eta beste-lako kartulinatxo dizdiradunen truke. Dotriñara bezalatsu, haurrak asterofutbolaren otoitzera. Kale eginez gero, etxean badute

aldaretxoa, botoidun mando eta guzti.

Ustez amaitu ziren malko eta algarak askatzeko nahikoa ziren hil ala biziko lehia haiek. Baina laster aspertzen da futbolaren erreinuko bizilaguna, txilena, erregate eta penalti gose da. Beste gauza batzuetan pentsatzen jar ez dadin, hobe du tele-

bista piztu eta Frantziako Eurokopa ikusi. Gaur hasiko da bai, segurtasun neurritz lepo, europar selekzioen arteko lehia. Guztiak ez dira bertan izanen, baina nahikoa izango da ezinegonak jota dagoen sinisduna asetzeko.

Baloiaeri so dagoen bitartean, hauteskunde batzuk izan dire-

la ere ahaztuko du. Bozkatu ote zuten ezin gogoratu. Noizbait aurkeztuko da Cristiano edo Messi bat gure agintari izateko. Berdintsu jokatu du, beti diruaren alde. Handinahiak jota, entrenatzaile soil ezin birziklatu, presidente kargua hobeki. Milaka bozka baloiaeren heroiak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU

eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean;

bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:

Foru plaza, 23, 1 Altsasu;
gutunak@guaixe.eus edo
948 564 275 telefonoa.

Alex autoz harrapatu zuenari

Gorka Ovejero

Aupa lagun, zer moduz doakizu bizia? Eramangarria zaizu oraindik lepo gaineko karga hori?

Ezagutzen ez zaitugun arren, lagun bezala hitzegiten dizugu, barenbaramakizunkarga izugarria izanen zaizula iruditzen baitzaigu.

Egun lazgarri horretan edanik

joanen zinen, edo drogaren bat harturik. Edo besterik gabe lokartzen ariko zinen, edo despisteren bat izanen zenuen, edo ziurrenik arestian botatako hauetako batzuen nahaspiloa batuko ziren. Eta ikararuko zinen, eta beldurrez jota jarriko zinen eta bertatik alde gitea erabaki zenuen. Eta ulertzen dugu, edozeinek uler dezake hori. Eta hurrengo egu-

netan beldurrari lotsa batuko zitzaion eta zigorraren ikara, eta maite zaituztenen dezepzioa...

Baina ondoren, hausnarketa heldu da.

Zortea badaukazu, foruzainek harrapatuko zaituzte, eta zigorra bete ondoren, zure bizitzarekin aurrerajarraritu ahalko duzu. Zortea ez badaukazu eta harrapatzen ez bazaituzte, zure barrunbe-

preso izanen zara, betiko. Eta karga hori eraman ezina dela iruditzen zaigulako idazten dizugu.

Izan zaituzte gizon oso, emakume oso, zoaz Alexen gurasoengana, lagun bat edo ahaideren bat lagundurik eta konta iezaiezu gertaturikoa, barkamena eskaiezu. Zure karga askazazu. Zoaz ondoren foruzainengana eta gertaturikoa onartu, heldu dakizu-

keen zigorra heldu dela.

Guztia bukatzerakoan karga arindu zaizula ohartuko zara, eta bizi berri bati hasiera emanen diozu. Ez dugu dudarik ahaideak bidaide izanen dituzula, lagunengana izanen dituzula eta sakandar gehienek ulermenak.

Adeitasunez, egunero Utzubar-go aldapako loreak ikusten dituzten sakandarretako bat.

objektibo tik



Bargagain Taekwondo taldearen erakustaldia igandean:

2015-2016 denboraldiko balantze positiboa egin du Bargagain Taekwondo Taldeko irakasle Gerardo Montero Riverak. Aurten 60 neska-mutiko inguru trebatzen ari dira arte martzial honetan. 2015ean 43 ziren eta 2014an 24. Gorakada handia, beraz. Taekwondo mundu bat da, bizitzeko modu bat. Borroka baino askoz ere gehiago da. Gaintzekoekiko errespetua sustatzen duen arte martziala da. Psikomotrizitatea, diziplina, errespetua, autonomia, osasuna... horren garrantzitsuak diren baloreak lantzen ditu. "Pozik nago. Gurea talde anitza da. Lehiaketetan aritzen den taldea dugu, baina baita ere soilik kirola egitera etortzen diren talde ere. Espainiako Txapelketan parte hartzen hasi gara eta emaitza onekin, gainera" adierazi digu irakasleak. Esaterako, berriki kadeteetara igotzen Anne Gil haur mailan lehiatu zen 2015ean eta zilarrezko domina lortu zuen Espainiako Txapelketan. Maiatzaren 28an Nafar Kirol Jolasen finalak jokatu ziren, haur mailatik junior mailara. "Oso ongi ibili ginen. Lehiaketa taldean 14 kide ditugu eta 13 ibili ziren finaletan. Nazionalerako sailkatu ziren asko. Kadeteen mailan, taldeka, bigarrena sailkatu zen Bargagain". nabarmendu du Monterok. Horretaz gain, ekainaren 4an Nafarroako 21 urtez azpiko Txapelketan jokatu zen Garesen. Lidia Martín bere mailan lehena sailkatu zen eta Sheila hirugarrena. Horretaz gain, Aitziber Bergera bigarrena sailkatu zen bere mailan, eta Iratxe Irigoien hirugarrena. "Eta taldekako txapelketan, emakumezkoetan, Bargagain bigarrena izan zen" gaineratu du Monterok. Horretaz gain, igandean Iruñeko Tennis Klubean taldeko txikiak aritu ziren, borroka erakustaldi batean. Igandean Bargagaingo ikasleek erakustaldia egingo dute Altsasuko Zelandi kiroldegian, 12:00etan.

CARLOS ANTOÑANZAS DE MIGUEL



Sakana, hegalarren paradisuak:

100 parapentelarik gora elkartu ziren larunbatean Iturmendin, Sakana Parapente Egunean. Egun bikainaz gozatzeko aukera izan zuten. Santa Marinara oinez edo etengabe gora eta behe-rra zenbiltzan garraioekin igo ziren parapentelariak. Inor hegan egin gabe ez geratzeko, biplaza hegaldiak ere eskaini ziren. Arratsaldean Iturmendin jarraitu zuten festak. Bakaikuko Vicios Viejos taldearen kontzertuaren ondoren, herri afaria izan zen frontoian. Aitzkozar elkarteok eta Ximona gaztetxeok prestatu eta zerbitzatu. Parranda goizeko ordu txikiak arte luzatu zen Nazarenos del Norte, Alerta Gorria eta Oso Basatis taldeen kontzertuarekin.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbifé Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: María Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILA: María Luisa Zelaia
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA KOOPERATIBA BISITATU DU AIERDIK: Sakana elkarte kooperatiboak dituen dibertsifikazio eta nazioartekotze estrategiak ezagutztea. Horixe izan da Manu Aierdik eta Pilar Irigoienekin, Sodenako zuzendari-kudeatzaileak, Lakuntzako lantegira bisita egiteko arrazoia. Ekonomia jardueraz aparte biek ere Sakana taldeak ibarrek duen loturaz, balioez, azalpenak jaso dituzte.

nek, Sodenako zuzendari-kudeatzaileak, Lakuntzako lantegira bisita egiteko arrazoia. Ekonomia jardueraz aparte biek ere Sakana taldeak ibarrek duen loturaz, balioez, azalpenak jaso dituzte.

sakanerria >>

>> Uharte Arakil

Iberoko hobian zegoen Victor Martiarena Irañeta

1936ko estatu kolpearen ondoren erail zuten

Zurbau elkar teak eta Oltzako Zendeako Udalak antolatutako ekitaldiak makina bat jende erakarri zuten, uhartearrak barne. Izan ere, Iberoko Zurbau dermioan hiru uhartear hil zituzten. Aranzadi zientzia elkarteko kideek indusketa egin zuten hobian abenduan. Zazpi gorpu atzeman zituz-

ten eta haietako bat Victor Martiarena Irañeta uhartearrarena dela jakinarazi zuen atzo Oltzako Zendeako alkate Moises Garjon Villanuevak. Silverio Astiz Ezkurdia eta Silverio Astiz Lakuntza aita-eme uhartearren gorpuak identifikatzea faltako litzateke beraz.

Igandeko ekitaldiarekin "memoria historikoa, egia eta just-

tizia berreskuratzeko" aldarrikapena egin zen. Halako aitortza lehenago ez egitea salatu zen eta Garjonek azaldu zuenez, "hobi guztiak induskatu arte ardura historikoa presente egonen da". Musikiariak eta dantzariak izan ziren ekitaldian eta Larragako herriak emandako haitz batean Manolo Garcia Nieblak oroigarria egin zuen eta atzo mustu zuten. Oroigarrian zera irakur daiteke: *Gogoa jaso eta oroitu hemen zer gertatu zen. Gogoratu eta besteei kontatu. Faszismoak eraildako enez. Iberoko hobia. Oltzako Zendea.*



Abenduan indusketa egin zuten Iberoko Zurbau dermioan Aranzadikoek.

SAKANA

Aranzadikoak Otsoportillon

Hezurdurak uste baino hobe daude eta identifikazioak egiteko DNA jasotzeko aukera izanen da. Senideak pozik bueltatu ziren etxera, DNA ateratu daitezkeenez identifikazioak egin daitezkeelako

Aranzadi zientzia elkarteko kideak, Francisco Etxeberria forentsea buru zutela, Otsoportilloko lezera jaitsi ziren larunbatean. Hondoko adar eta bestelako zikinaria garbitu ondoren, Aranzadikoek lezearen barrua aztertu zuten. Espero bezala metro bat luze, 40

cm altuera eta 60 cm-ko zabalera zuten metalezko kutxa bat opatu zuten. Lezea ixteko baimenik jaso ez zuten, 1982an eraildako senideak lezera jaitsi zirenean hildakoen hezur guztiak han sartu zituzten, tartean zortzi buru-hezur.

Etxeberriak azaldu zuenez, kutxa urez gainezka zegoen eta hura ateratzeko zulatu egin zuten. "Barruan hezurak zeuden. Batzuk ez dira pertsonenak, baina gehienak bai. Gutxienez sei per-



Francisco Etxeberria forentsea azalpenak ematen. MANU GOMEZ

tsionen hezurdurak daude. Hezur luzeak, beso eta hanketakoak, ongi kontserbatuak daude eta DNA ateratzeko aukera izanen da. Bi matrail-hezur zeuden, batek dentistaren tratamendua du, besteak hortzak ditu ere. Buru-hezurrik ez dugu aurkitu, belarri aldeko zati-

ren bat soilik. Saihetsak ere". Lau orduko lanaren emaitza izan zen. Iruñeko Satorrak espeleologia taldeak 1979an lezea ikertu zuenean 13 gizonen eta emakume baten hezurdurak opatu zituela jakinarazi zuen. Azken hori Camino Oskoz Urriza 22 urteko irakasle

iruindarra izan daiteke. Satorrak taldeko kideak lezera jaitsi zirenean 10 metroko sakonerara egin zuten. Larunbatean 7,8 metrorajaitsi ziren, jendeak botatako harriekin kono itxurako harri pilaketa egin delako. Haren azpian hezur txikiren bat gelditu daiteke. Bestela, ardi edo txakur baten hezur basterik ez zuten opatu Aranzadikoek.

Deialdia

Otsoportilloko lezera jende asko jaitsi da eta haiekin buru-hezurak eraman dituzte. Halakoen berri dutenek senideekin harremanetan jartzeko deia egin dute.

SAKANA



Boluntarioak lanean Altsasun.

Jatekoak ematen

Nafarroako Elikagai Bankuaren deialdiari erantzunez, ostiralean eta larunbatean makina bat sakandarrak jaitsi eman zituzten. Bankuko boluntarioek jaso zituzten, gero behar gehien duten pertsonen artean banatzeko. Jaki bilketaren antolatzaileek adierazi dutenez urte guztian beharra duen pertsona bakoitzari 121 kilo elikagai emateko adina jaso nahi zuten. Jaki horiek bankuaren egoitzan gordetzen dira eta gero handik Nafarroako eskualde guztietara banatzen dira, Sakanara barne.

SAKANA

Institututik 40 ikasle selektibitatera

Altsasu institutuko D ereduko 36 ikasle eta A ereduko 4ari dira proba egiten. Iruñeko Biurdana ikastetxean ikasten ari diren ikasle irurtzundar eta arakildarrak ere

Herenegun hasi eta gaur despedituko dute selektibitate 2.909 ikasle nafarrek, joan den urtean baino 29 gehiagok. Haietatik 1.703 emakumezkoak dira etagaintzeko (1.206ak gizonetzkoak). Hizkuntza ereduak dagokionez, selektibitatea gaztelaniaz 2.128 ikasle egingen dute eta 781 euskaraz.

>> Irurtzun

Kultur-aniztasuna dastatuz

2009tik hitzorduari hutsik egin gabe, Munduko Arrozak ekimenak sukalde bihurtu zuen Foru plazako aterpea. Zortzigarren edizioan Senegalgo, Ganbiako, Europa ekialdeko, Irurtzungo eta Andaluziako arrozak dastatzeko aukera izan zen. Horretaz aparte, atzo hasi zen Ramadan-ean islameko fededunek hartzen duten harira zopa ere dastatu zuten hainbatek. Hitzorduak kul-

tura ezberdinetako irurtzundarrak elkar ezagutzeko balio izan zuten.

Gastronomia festarekin batera haurrek munduko jolasekin gozatzeko aukera izan zuten. Bestalde, Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza balioak sustatzeko udako kanpaina larunbatean Irurtzunen abiarazi zuen.



Andaluziako arroza prestatu zuten.

Bakaikuko festak 2016

Uztailaren 22tik 26ra

Bakaikuko Bakarrek - Etxea elkarteak festetan alokatuko da. Enkantearen hasierako prezioa 2.000 €-koa izango da lokal handiarentzat, eta 1.000 €-koa lokal txikiarentzat. Epearen bukaera uztailaren 1ean gaueko 22:00ean izango da.



Kontaktua / 636 377 291 - 630 625 466
bakarrekoetxea@gmail.com

Etixerako aseguroak

Zure etxea delakoa izanda ere

Konfiantzazko aseguratora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU



» Altsasu

Euskalkia trebatzen

AEK-ko irakasle den urdindar batek gidatuta, Aitor Irigoien, makina bat gazte euskalkia lantzeko saioan parte hartu zuten ostiralean. Altsun Eskuaz taldeak antolatuta aurkezpenak, hiztegia eta bestelako esapideak jolasen bidez ikasteko aukera izan zuten. Saioaren akaberan parte-hartzaileek Kima euskara taldeak 2006an argitaratutako Jose Iriarte Zufiaurre, Ttoto, bertsolari altsasuarrari buruzko liburu bana jaso zuten opari.



Makina bat gazte elkartzaren Altsasuko euskalkian trebatzeko.

»

Bisonteen aukera mahai gainean

Desagertze arriskuan dagoen animalia sartuz, zeharka tokiko ekonomiari bultzada eman nahi dion elkarteak sortu berri da. Altsasun bost animalia ekarri nahi lituzkete

Erkuden, Europar Bisonteen Nafarroako elkarteak 13 altsasuarrenekin sortu berri da. Bere helburua Nafarroan berriro Europar bisontea sartzea da. Animalia hori ez desagertzeko espezieko zenbait ale Altsasura ekarri nahi dituzte, bertan hazteko. Egitasmoa gauzatuko balitz, elkarteak kide Marcos Alvarez Basartek esan digunez, Altsasuk "ikusgarritasuna irabaziko luke. Bisontek ikusteko bisitak antolatuko lirarteke. Bide batez, gure basoa erakutsiko genuke, herrian dugun aberastasun handiena eta ustiatzen ez duguna da. Europar bisontearaino lotutako produktuak ekoiztuko lirarteke. Horrek guztiak turismoa sustatuko luke eta, horren ondorioz, enplegua sorlezake. Ekarpen positiboak egiten dituela uste dugu. Gauza askotarako bidea da".

Laukorik ez zela inbertitu beharko ere gaztigatu du Alvarezek. Izan ere, europar bisontea berreskuratzeko gastu guztia diruz lagunduta dago: "Europako Bata-sunaren Life programaren bidez %75 ordaintzen du eta gainontzekoa Poloniako Gobernuak, bisontek guztiak handik heldu baitira." Animalia bakoitzak 10.000 euro balio ditu. Itxitura eta garraioa da egin beharko litzatekeen gastua. Estatuan europar bisontea hazte-



Europar bisonteen berreskurapena sustatu nahi duen elkarteak kideak.

ko erreserba txikiak sortu dira Burgosen, Kantabrian, Leonen eta Valentzian.

Europar bisontea hariztiak eta pagadiak ditu bizileku. Elkarteak kideek teknikariak kontsultatu dituzte eta Altsasuek espeziearendako "toki ideala" dela azaldu diete, "basoa eta ura dituelako, klima egokia delako eta espazioa dagoelako. Gipuzkoarekin mugan soilik 800 baso hektarea ditugu. Aska-tu eta elikatu egingen litzatekeen animalia basati bat da". Elkarteak 30 hektarea erekin nahikoa luke. Tokia ere begiz jota dute, Aitzkibelan atzean dagoen ibar itxia. "Lazaro Etxeberriaren harrobien atzeko aldean". Asmoa litzateke han lau eme eta ar bat askatzea. "Itxitura, artzain-kable batekin nahikoa da, animaliak ez ateratzeko litzateke, jendeak berdin-berdin sartzen segituko luke". Baina tokia ere ez luke zergatik finkoa izan beharko, mintegiak

sortzeko basozainek itxiturak egin beharko balituzte beste toki batera mugituko lituzkete. "Bisontek basoko sasiak garbitu eta animalia gehiago erakartzen ditu" gaineratu dute elkartetik.

Erkuden elkarteak bere egitasmoaren berri udalari aurkeztu dio eta hark Cederna-Garalurrekin harremanetan jarri zituen. Bestalde, mikologia, mendizale eta ehiztari elkarteak kideekin ere harremanetan izan dira. Azken horiek ez beste guztiek arazorik ez zegoela esan diete. Erkuden elkartetik azaldu digutenez, ehiztari elkarteak oniritzia eman arte ezin dute ezer gehiago egin.

+www.guaixe.eus

Harremanetarako

bisontena@gmail.com
Facebook

»

Sei pintxo berezi aukeran



Eguzki-lore itxurako pintxoak.

Joan den asteburuari segida emanen dio Xurrutek, Alde Zaharreko tabernen elkarteak, eta bakoitzean berriro pintxo berezi bat dastatzeko aukera izanen da. Gutizia txikiak 2,2 eurotan eskuratu daitezke. Seiak jaten dituztenek eta txartela osatu hainbat sariren zozketan sartuko dira: sei afari eta 100 euroko sei sari. Honakoak dira dasta daitezkeen

pintxoak: Arkangoa, eguzki-lore izenekoa; Gautxori, arkume-txuleta foie bexamel eta ardo beltz erredukzioarekin; Koxka, barazki bexamel duen brika, ondo saltsa duten intxaurrekin eta ogi xigortu gaztaduna; Lezea, espinaka, erremolaxa eta sepia espagetiak ganba bexamel, gazta eta alioli saltsekin; Urtzi, otarrainxka kurruxkaria baratxuri beltzeko saltsan; Xume, arrautzetatutako bakailaoa, piperrak, pikillo saltsa eta otarrainxkak.

» Etxarri Aranatz



Santutik santura

Etxarriarrak estimatutako bi ospakizunetarako prestatzen hasiak dira: San Kiriko eta San Adrian. Aurrenekoa, patroia, astelehenean ospatuko da. Egurdian meza izanen da eta ondoren, eliz atetik, herriko soroak bedeinkatuko dira. Lagunko-drilak Andra Mari ermitaren bueltan merendatzera 19:00etan elkartuko dira. Zuloa berdinduta dutela kintoez dantzakia dantzatuko dute eta jendeak plazarako bidea hartuko du. Han Gabenara taldeak dantzaldia eskainiko du, 20:00etatik 21:30era eta 22:30etik 2:00etara. Asteleheneko ospakizunari osteguneko San Adrianerako erromeriak hartuko dio lekukoa. Txistulariak lagun dituztela udaleko kideek 9:00etan basorako bidea hartuko dute. 5 km-ko bidea egin ondoren, 11:00etan denendako jan-edanak izanen da; lehenik, fritada (haragi gisatua) eta, ondoren, zopa (fritadaren saldarekin egina). Ardo kupelak jatekoak despeditu ondoren zabalduko dira eta ilundu arte ez dira itxiko. Gosaldu ondoren suak prestatu eta burduntzietan haragia erretzen jarriko dute hainbatek. Familiak gosaltzeko aukera ere ez dute galduko askok. Egurdiko elizkizunaren ondoren, 13:00etan, dantzariak ere ariko dira. 15:00etan lehertuko den etxajauk bazkal garaia dela iragarriko du eta etxarriarrak ez dira mahaitik jasoko txistulariak pasa arte. Mahaian artean lehen jotak eta porrusaldak dantzatuko dira. Ordurako trasteak jasotzen hasiko dira. Etxarriako bidea hartu aurretik *Gernikako Arbola* kantatu eta txistuaren doinura kalejira luze-ariekin indote etxarriarrek 19:00etan. Bideak eragindako egarria arintzeko ardo kupelak daramatzen udaleko kamioiak lau geldialdi egingen ditu. Azken afaltzeko erabiliko dute askok. Gauerdien aurretik iritsiko da kalejira herrira, azken zati luzean dantzakia dantza eta dantza daudela. Udalletxe pareko azken dantzakiaren ondoren Oharkabe taldean dantzaldia eskainiko du, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 2:30era.

» Altsasu

Alde Zaharreko auzotarren festa

Altsasuko Alde Zaharreko auzotarrek laugarren urtez euren festa ospatuko dute bihar. Feriak kaleko aska ondoren goizter hasiko dira bazkarirako zikiroa prestatzen. Lana egin bitartean, 13:00etan, gosaldueginen dute. Mahaiaren bueltan bazkaltzera 125 bat pertsona eseriko dira 15:00etan. Mahaiaren inguruanda delakantua ez dira faltako. Herri kirolak, zortzi-koa eta bestelako dantzak eta gehiago izanen dira arratsaldean.

» Bakaiku

Udalak batzarrera deitu du

Larunbatean, 12:00etan, udaletxeko Auzo gelan

Legegintzaldia hasi zenetik urte bat pasa denean, Bakaikuko Udalak batzarrera deitu du. Bilkura horretan udalak dituen asmoen berri emanen du, esaterako: diru kontuen, aurtengo aurrekontuen, Iriondo kaleko proiektuaren, auzolanaren eta bestelakoak. Bakaikuko Udaletik bakaikuarrei batzarrera joateko gonbidapena egin diete, "informatzeko eta zalantzak, iradokizunak, kezak... ekarri parte hartzeko".



Bakaikuarrak korrikalaria txalotzen.

» Burunda

Burunda ekialdeko gazteen topaketa

Larunbatean, 11:00etatik aurrera Urdiainen

Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo gazte asanbladek Burunda ekialdeko gazte eguna antolatu dute estreinakoz. Urdiainen hartuko ditu ospakizunak. Bihar izanen dira, baina gaur, 19:00etan, abiatzeko, Erakitze lanetan ari gara dinamika aurkeztuko dute hiru asanbladetak kideek. Bihar, egurditik ordu txiki-txiki izanen da ospakizuna.

Egitaraua

11:00etan Eraikuntza tailerrak.
13:00etan Kalejira trikixarekin.
15:00etan Bertso-bazkaria.
18:00etan Kalejira musikarekin.
20:00etan Kontzentrazioa.
22:00etan Ogitarteko jatea, plazan.
23:30ean Kontzertuak plazan: Against you, Baxtardix eta Batek Daki (erromeria).

» Arakil

Oporren aurretik Astelehen Zoriontsua

Astelehenean, 19:30ean, Ihabarko Gure Kabiya elkarteak

Elkartu eta gai baten inguruan euskaraz hitz egitea. Horixe da Astelehen Zoriontsuak ekimenaren helburua. Arakileta Irurtzun aldeko euskaldunak elkartu dira orain arteko bi saioetan. Heldu den astelehenean, atzera ere, elkartu egingen dira. Orduan hizketa gaia animalien inteligentziak emanen du. Saio horren ondoren taldeak garilean eta agorrilean jai hartuko du, baina iraillean jardunari heltzeko asmoz.

SAKANA

Klinikatik
Parlamentura

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko mediku zuzendaria eta Alzheimer Gaixoen Nafarroako Elkarteko Idoia Lorea psikologoak parte hartu zuten Nafarroako Parlamentuak gaitzari buruz atzo hartu zuen jardunaldian. Batak eta besteak azpimarratu dute garrantzitsua dela "gaixotasuna eramangarriago egiteko gaitzari buruzko informazioa, prestakuntza eta babes jasotzea". Bide batez, Alzheimerri ikertzen duten ekimenak babesteko beharra azpimarratu zuten.

Roldan medikuak azaldu zuen demenziak haiekin aurretik pertsonen zituzten gaitasun intelektualak galtzea dakarrela (memoria, hizkuntza, zentzua edo arrazoiak) eta emozio eta jokabide nahasmena dakartela. Gaitza horiek, mailakaturik eta itzulezina den moduan, gaixoak "erabateko dependentziara bideratzen dituzte." Roldanek azaldu zuenez, dependentziak euren hasierako sintomengatik ezberdintzen direla azaldu zuen eta nagusiak Alzheimerri eta demenziak baskularrak zirela gaineratu zuen.

Pentsio duinen
aldeko Herri Ekimen
Legegilea

Gutxieneko 1.080 euroko pentsioak ezartzeko sinadura bilketa hasi dute lege proposamena Nafarroako Parlamentura eramateko

Nafarroako Pentsionistak Martxanek Herri Ekimen Legegilea martxan jarri du. "Nafarroako pentsiorik apalenak osatu eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa babes eta gizarte segurantzaren sistema sortzea" proposatu du. Kolektiboak jakinarazi duenez, Nafarroan 130.033 pentsiodun daude eta batak besteko pentsioa 1.020 eurokoa da. Baina "haietatik 61.513 pertsona, gehienak emakumezkoak eta funtzio askotariko pentsiodunak, hilean 600 euro ere ez dituzte jasotzen". Pentsionistak Martxan-etik azaldu dutenez, "Europak gomendatzen dituen pentsioetatik oso urrun gaudete. Oinarritzko behar minimoei aurre egiteko gutxieneko sarrera 1.080 eurokoa izan behar du".

SAKANA

Sakanako Sozioekonomia
Behatokiaren bilera

Asteartean, 17:00etatik 18:00etara, Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan

Sakanako Plan Estrategikoa onartuta, helburu eta ekintzak zehaztuta, "nahitaezkoa da egindako lanaren inguruko jarraipena egitea: egindakotik ikasiz, akatsak zuzenduz eta etorkizunari zuzen begiratuz. Plan Estrategikoaren arrakasta hein handi batean jarraipenari lotuta dago." Hala uste dute Sakanako Mankomunitateak, Cederna-Garalurrek, Sakanako Garapen Agentziak eta Sakantzen Sareak. Eta, horregatik, Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren (SSB) bilera deitu dute eta hartara ibarreko eragileei joateko gonbidapena luzatu diete. Izan ere, "gaur egun sozioekonomia aldaketak

oso azkar ematen direla kontuan harturik, Sakanan abian jarri dugunaren antzeko Tokiko Garapen prozesuek egoera alda-

korretara moldatzeko ahalmena ezinbestekoa dute".



Eragileak plan estrategikoaz ariko dira.

Egitaraua

2015eko balorazioa.

Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalurren 2015 urteko memorien aurkezpena (30')
Galde eskeak, ekarpenak... (10')

2016rako ekintza proposamena

Ekintza proposameneren aurkezpena (30')
Galde eskeak, ekarpenak... (10')

Sakanako Plan Estrategikoaren elkarlan hitzarmenaren aurkezpena

Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako Mankomunitatearen arteko hainbat urtetarako elkarlan hitzarmenaren aurkezpena (10')
Galde eskeak, ekarpenak... (10')

Garapen
esperientziez ikasten

Tokiko garapenari buruzko mintegia heldu den asteazkenean despidituko da Azaro fundazioaren berri emanez. Altsasuko lortia kultur gunean izanen dira, 16:30ean. Ainhua Arrizubieta Zabalak Lea Artibaieskualdean enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasunahobetzea helburu duen fundazioaren berri emanen du.

Komunalak
aberastasun
iturri

Komunala XXI. Mendean jardunaldia hartu zuen Altsasuk ostiralean eta larunbatean. Komunalen gobernantza eta hartan herritarren parte hartzea aztertu zituzten. Esaterako, Asun Berastegi

arbizuarrak Etxarri Aranatzeko beheko basoa kudeatzeko azientzarekin egiten ari diren egitasmoaren berri eman zuen. Andoni Otamendi bakaikuarrak, berriz, Sakanako komunalen inguruan egindako lana aurkeztu du. Igan-dean Aralar Elkarteko ordezkariak laguntzaz mendia nola kudeatzen duten ezagutzeko aukera izan zuten jardunaldian parte hartzen dutenek.



Komunalen gobernantzaz hizketan.

SEEk Barkosi ibarraren
ekonomia egoeraren berri
eman dio

Sakanako Enpresarien Elkarte-ko (SEE) ordezkari bat Nafarroako Gobernuak lehendakari Uxue Barkosekin bildu zen astearte goizean. Nafarroako Jauregian egindako bilkuran SEEko kideek Barkosi Sakanaren ekonomia eta bere enpresa ehunaren egoeraren berri eman zioten, baita ibarrean garatuko diren planen eta etorkizunerako

aurreikuspenen ere.

Hala, Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) hizpide izan zuten. Lehendakariak SPEri gobernua babesa emateko egindako apustua nabarmendu zuen. Barkosen esanetan "plana lan tresna ona da, Sakanan egindako ahalgin handiaren fruitua, eta Nafarroako ekonomia garapenerako estrategiarekin bat egiten du".



Sakanako Enpresarien Elkarteak Uxue Barkosekin. UTZITAKOIA

280 langabe gutxiago

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, urteko lehen hilekoaren akaberan joan den urtean baino 280 langabe gutxiago daude

Sakanan.

Ibarreko enpresetan gizarte segurantzaren izena emandakoen kopurua igo egin da zortzi urtetan estreinaokoz.

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gogobetetzea.

Hyundai Tucson Berria.
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

 NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km):
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

SAKANA

Europako ikasleak Andra Mari ikastolan

Poloniako, Italiako, Letoniako, Austriako, Hungariako, Errumaniako, Greziako eta Portugaleko ikasleekin batera Erasmus+ proiektuan parte hartzen ari da ikastola

Astelehenetik gaur arte Europako zortzi herrialdeetako beste horren beste ikastetxeetako ikasleak Andra Mari ikastolako DBHko 3. mailako ikasleekin egon dira, haien etxeetan lotan. Guztiak ere Europako Batasunak hezkuntza arloan ematen duen Erasmus + bekarekin proiektua garatzen ari dira: in the paradise garden of Europe. Europan ezezagunak diren baina xarma berezia duten natura-espazioen mapa bat osatzea da proiektuaren xedea. Bi urteko proiektua izan da eta bitarte horretan ikastetxeek euren natur eremuak, artea eta sormena partekatu dituzte. Joan den urteko maia-



Europatik etorritako ikasleei Etxarri Aranazko udaletxean eta Parlamentuan harrera egin zieten.

tza akaberan Sakanako ikasleak Poloniako Kaxubia eskualdean izan ziren.

Proiektuak iraun duen bitartean ikasleen arteko hainbat topaketa izan dira, azkena Andra Mari ikastolan. Europatik etorritako ikasleek Sakanako “txoko

kuttunak” ezagutzeko aukera izan dute. Elkarrekin euren kulturen berri jaso dute ikasle guztiak ere. Elkar ulertu ahal izateko ingelesez aritu dira gaur. Andra Mariko zuzendaritzak topaketa baliatu du ikastolen erduaren berri emateko eta ikasto-

letan ingelesa lantzeko erabiltzen den Eleanitz proiektua ezagutarazteko. Andra Mari ikastolatik adierazi dutenez, “esperientzia oso positiboa izan da eta etorkizunean ere atzerriko ikasleekin elkar trukeak sustatzen jarraituko dugu”.

SAKANA

Ikasle sakandarrak Confint topaketan



Gazteak ingurumena zaindu eta hobetzeko ikastetxeetan garatu dituzten esperientziak azaldu zizkieten elkarri.

Altsasu institutuko eta Sagrado Corazon ikastetxeetako ikasleak Nafarroako Confint topaketan parte hartu zuten ostiralean

Gazteen artean planeta zaintzeko ardura sustatzeko antolatzen dira Confint topaketak nazioartean. Ikastetxeetan Confint topaketak eginez hasten da. Ondoren, erkidegoko bil-

kurak izaten dira. Ingurumenaren eguna zela eta, ostiralean Nafarroako Confint topaketa izan zen Iruñean. Nafarroako Ikastetxe Jasangarrien Sareko kide diren bederatzia ikastetxeetako 58 ikasle eta 13 irakasle elkartu ziren, haien artean Altsasu institutukoak eta Sagra-

do Corazon ikastetxeetakoak. Bakoitzak diseinatu eta garatu zituzten proiektuak erakutsi eta azaldu zituzten. Gainera, elkar ezagutu, esperientziak partekatu eta ingurumen tailerretan elkarlanean aritzeko aukera izan zuten. Estatuko Confint topaketa Errioxan izanen da azaroan.

SAKANA

Presoen aldeko protestagatik 6.000 euroko isuna

Hamar gazteri jarritako isunak ordaintzeko Sakanako eragile eta herritarrei errepresioaren aurrean elkartzunarekin erantzuteko

Preso adina gazte Hego Euskal Herriko eraikin publikoetan kateatu ziren euskal presoen eta iheslarien aldeko ekintza batean abenduaren 30ean. Nafarroan Espainiako Gobernuak duen ordezkaritzan 37 gazte nafar kateatu ziren, haietatik 10 sakandarrak. Mozal legea aplikatuta protesta egin zutenei 600na euroko isun bana iritsi zaie, 22.000 euro guztira. Gazte sakandarrek 6.000 euroko isuna jaso dute.

Gazteek Mozal legea ez dutela onartzen adierazi dute. Horregatik, “ekimen honen aurkako eraso honi aurre egiteko eta etorkizunean egin daitezkeen ekimen desobedientei babesa emateko

dinamika abiaraziko dugu”. Gazteek azaldu dutenez, “edozein ekimen desobediente aurrera eramaten den bakoitzean estatu errepresioaren aldetik erantzuna ematen da. Sakanan herri mugimendua blokeatzeko milaka euroko isunak pilatu dira”. Altsasun soilik azken urteetan 28.000 euro izan direla nabarmendu zuten.

Estatuak “errepresio estrategia mantendu eta findu” duela adierazi zuten eta Mozal legea hor kokatu zuten. “Errepresioa isunen bidez ematen da. Ez da ageriko errepresioa, baina errepresioaren helburuak lortzen ditu, status quoa zalantzan jartzen duen edozein mugimendu jazartzea”. Legeak ezartzen dituen isun horiek “adierazpen askatasuna eta iraultzeko eskubidea dirudunen esku-



Isunei erantzun kolektiboa emateko deia zabaldu zuten.

bide bilakatzen ditu”. Gazteek denek “kezkak aldarrikatzeko eskubidea” aldarrikatu zituzten, eta ziurtatu zuten “eskubide sozial eta politikoen urraketa berria” ematen ari dela. “Isun indibidualak badira ere, eraso kolektiboa

da eta erantzuna kolektiboa izan behar du.”

Ekarpenak

Diru ekarpenak egiteko kontu korronea
ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Uharte / Etxarri

Ikasleen atxiloketaren salaketa

Ikasleak libre! Lelo zuen pankartarekin hainbat sakandarrek kontzentrazioa egin zuten igande arratsaldean Etxarri Aranatzen. Maiatzaren 25ean Espainiako polizia 15 urteko bi ikasle atxilotu zituztela salatu zuten horrela. Atxiloketa egiteko modua salatu zuten, adin txiki-koak izanik epailearen aurrera beste modu batera deituak izan zitezkeela gaztigatu zuten. Bi gaztetxoek eskubideak urratu zirela nabarmendu zuten. “Poliziaren jarrerak, euren eskubideak ez errespetatzeaz aparte, haiek eta ingurukoak belurtzeko eta eskarmentatzeko intentzioa erakusten dute”.

SAKANA

Prekarietatearen kontra, eskutik

Sakandar talde batek deituta giza kate batek Altsasuko enplegu bulegoa eta Iortia kultur gunea lotu zituen ostiralean. Langile, feminista, pentsiodun, gazte eta beste arlo batzuetako ordezkariek ziren pertsonak parte hartu zuten giza katean. Erakutsi zituzten karteletan honako leloak irakur zitezkeen: astean 65 ordu lanean eta 1.100 euroko soldata; lan eskubideak defendatzea; gatikaleratuta; gure borroka ez dago krisian; lan munduan diskriminaziorik ez; euskaraz lan eta bizi nahi dugu; langile ikusezinak izan ginen baina borrokan ikusikogaituzue; 1.080 euroko pentsioa minimoa; emakumea, 30 urtelanean eta 10 urte kotizatuta, pentsio eskubiderik gabe; prekarietatearen sutsutiko dugu; lan berdina, soldata berdina; feministok prekarietateari planto; 35 orduko lanaldia.

Sindikatuaren jubilatuen batzarra

LABeko jubilatuen eta pentsiodunen Hego Euskal Herriko arloak Altsasu aukeratu du ikasturte akaberako batzarra egiteko. Egindako jardunaren errepaso eta aurrera begirako erronkak zehaztu ditu LABeko arlo horrek: gizarte justizia aldarrikatzea, osasun berrordaintzaren kontra egitea, pentsio duinak jasotzea, bizitza duinerrako eskubidea aldarrikatzea, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta beste hainbat. Aldarrikapen horiek gauzatzeko Euskal Herrian eta Europan lan egiten duen LABen jubilatuen eta pentsiodunen arloa.

Sindikatu arloak LABeko militante eta afiliatuak deitu zituzten behin jubilatuen ondoren “beste modu batean parte hartzen segitzeko klase eta herri gisa ditugun aldarrikapen ugarietan. Jubilazioarekin ez da ezer bukatzen, aukera eta borroka molde berriak sortzen dira, beste aldarrikapen batzuk, eta, horretarako, denak gara beharrezko.”

» Etxarri Aranatz / Altsasu

Idomeni, Europa lotsagorritzen den tokia

Greziar dagoen herria da Idomeni, Mazedonia mugaren ondoan. 6.500 errefuxiatu hartzen zituen kanpalekua maiatzaren 24an hustu zuten. Aurretik han izan ziren boluntario Amaia Urriz eta Sergio Moro altsasuarrak eta han bizitakoa kontatu digute

“Errefuxiatuen krisia”. Halaxe izendatu dute Ekialde Hurbileko, Asiako eta Afrikako gatazketatik ihesi Europara bizi hobe baten bila migratu duten pertsonen errealtatea. Amaia Urrizak eta Sergio Moro, beste askok bezala, hedabideen bidez jasotzen zuten horren berri. Morok joateko arrazoia azaldu digu: “badakigu han gatazka bat dagoela. Hara joanen gara zer dagoen ikustera.” Aste bateko egonaldia izan behar zuena bi astekoan bihurtuko zen azkenik; “beti dago zereginen bat.” Joan-etorriak eta egonaldiko gastu guztiak bikoteak ordaindu zituen.

Greziar

Idomenitik, autoz 20 minutura, dagoen herri txiki bat da Polikastro. “Errepide ondoan hotel txiki bat dago. Han Gobernu Kanpoko Erakundeetako (GKE) kideak eta boluntario independenteak elkarrekin ziren” zehaztu digu Morok. Goizero, 8:00etan, bilera egiten zuten: “boluntario berriei harreara egin, orientatzeko, handik nola mugitu, non jan, dauden GKE berri eman, bakoitzaren zeregina azaldu, zein lanetan parte hartu ahal genuen...” azaldu digute biek. Zereginak zerrendatu ditu Morok: “GKE batzuk bazkariak prestatzen dituzte, beste batzuk jolasak, beste batzuk arropa banatzen zuten...” Boluntarioek elkarrekin harremanetan egoteko whatsapp talde bat zutela ere argitu digute. “Egunero zein behar zituzten jakinarazten zuten: 12:00etan arropa banatzeko laguntza behar dugu. Ahal zuena hara joaten zen”.

Morok: “gu iritsi ginen egunean muga irekiko zutenaren zurrumurrua zabaldu zen. Errefuxiatu asko Atenastik, Tesalonicatik eta Polikastrotik Idomenira igo ziren”. Trenbideak moztuak zeuden. “Puntu batean protesta gune bakesu bat zegoen. Iritsi ginen oso gogorra izan zen. Errefuxiatu batek jaioberri bat eskutan hartu zuen eta megafonotik esan zuen: ume haugure etorkizuna da. Gure etorkizunagatik borrokatuko gara! Han dagoen egoerarekin kontzientez izaten hasten zara. Benetan, oso gogorra.”

Errefuxiatu eremua

Idomeni 50 bat biztanleko herri txiki da, nekazaritza jardueran nagusi duena. Hango trenbidea moztu eta inguruko soroak eta zelaiak Europako ametsaren ate bihurtu ziren milaka errefuxiatuendako. Ondoan beste hiru kanpaleku txikiagoak zeuden. Errefuxiatu

gehienak siriarrak ziren. Aljeriakoak, Marokokoak, Kurduak, Afganistangoak, Pakistangoak... “denetarik zegoen”. Morok argitu digunez, errefuxiatu askoren jomuga Alemania zen, han familia baitute. Zazpi muga pasa behar zituzten hara iristeko. “Hasieran Idomenitik zeharkatzen zuten muga. Mazedoniako Gobernuak hesia jarri zuen arte. Muga haren kontra, pixkanaka-pixkanaka errefuxiatuak pilatzen joan ziren”. Horrela sortu zen errefuxiatu eremua.

11.000 pertsonetatik erdia haurrak izanzen ziren. Kanpalekua deskribatu digu Urrizak: “bi hilabeteko gauza izan zen eta dena inprobisatua zen. Kanpin-dendak ziren denak, ez dute txabolak eraikitzeke denborarik izan.” Mugarik Gabeko Medikuek GKEk karpa handiak jarri zituen eta haietan 150 bat ohatze zeuden. “Karpa bakoitzean 300 pertsona sartzen ziren.” Jatekoak kamioietan biltzen zuten, arropa furgonetetan. “Komuna berde txiki horietakoak jarri zituzten. Dutzak, gu joan ginen haurrendako jartzen ari ziren. Ezer ez zegoen prestatuta”, ziurtatu digu Urrizak. Eta Morok gaineratu: “Idomeni herrian iturri bakarra dago. Ura hartzeko hodi batzuk prestatu zituzten baina 11.000 pertsonendako hiru hodi ziren.”

Han opatutako pertsonen ere galdetu eta “denetarik” dagoela ziurtatu digute: “bakarrrik dauden haur asko daude, familia itasoz zeharkaldian edo gerran galdu dituztenak; bakarrrik dauden gazte asko; familiak ere.” Familiak elkarrekin egoteaz arduratzen ziren elkarrekin bazeuden, kanpin-denda handitan sartzen zituztenak. Etnien edo herrialdeen arabera banatzen ziren.

Zereginak

Moro: “Kataluniako suhiltzaile batzuekin elkartu ginen gu. Arratsaldero haurrendako janari poltsak prestatzen zituzten. Poltsak gauetan banatzen genituen. Gauean, errefuxiatuak lasaiago zeudelako eta banatzea errazago zelako, asko euren kanpai-dendetan zeudelako. Bestela, beharragatik inguruan pilatzen dira”. Egunerokolan horretaz aparte, bikotea beste GKEetara jotzen zuten euren burua lanerako eskaintzera; “goizak nahi genuena egiteko libre genuelako”, azaldu du Urrizak.

Horregatik, beti whatsappean zeuden laguntza eskaerei adi zeuden. Hala, oheak muntatzea eta beste makina bat zeregin egin dituzte. Moro: “egun santu guztia gauzak egiten egon zaitezke, ez duzu bukatuko. Askotan ohera sartu eta: badakizu zer ahaztu zaitgun? Zer? Afaltzea, ez dugu afaldu. Edo 17:30ean bazkalduko



Amaia eta Sergio martxoko azken astean eta apirilko lehenean egon ziren.



Aurretik ezagututako istorio okerra baino okerragoa ezagutzen joan ziren.



Idomenin bizitakoa “ezin ahaztu, ezta nahi ere”.



“Pertsona horiei Europako Batasunak ez die inolako aterperik eman”.

genuen”. Urriza: “Goizean-goiz jaiki eta martxan-dinamikan sartzen ziren”. Zein behar zituzten jakinda Idomenira joaten ziren. Errefuxiatuekin elkartzen zirenean zituzten premiez ere galdeztzen zieten: “justu ailegatu berri gara eta ez dugu kanpai-dendarik. Biltegira joan eta eramaten genien. Lo zaku eta mantekin batera.”

Errefuxiatuendako ere oso tresna erabilgarria bihurtu da whatsapp. “Haien familiekin komunikatzeko tresna zen. Telefonoan dituzte familia eta lagunaren kontaktuak. Pentsa, etxetik ez dakit zenbat km-ra daude eta telefonoa galtzen badute dena galdu dute”,

azaldu du Urrizak. Errefuxiatuen beharra ikusita elkarrekin batek Idomenin wifi sarea eta mugikorrak kargatzeko koadroa jarri zuen.

Idomenira iristen zen laguntza bakarra GKEk eta boluntarioek emandakoa zen. “Greziako Gobernuak ez du dirurik jarri. Europak ezta ere. Greziarendako ez da bate-re eroso. Hainbat kanpalekutan milaka pertsona ditu. Europan barna ere kanpaleku asko daude.” Europako Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioaren ondoren errefuxiatuak Greziara iritsi ahal Turkiara bueltan bidaltzen dituzte orain.

Egun bat

“Haien errutina oso gogorra da” aitortu du Morok. “lo-zakutik altxatu, bazkaltzeko ilara egin behar, arropa eskuratzeko ilara zain egon behar, gauza bera afaltzeko. Ohera. Eta hurrengo egunean berdin.” Aisialdirako ezere zegoela gaineratu du Urrizak. Nabarmendu duenez, ingelesa zekiten errefuxiatuak GKEendako itzultzaile gisa oso baliagarriak ziren. “Haiek boluntario gisa aurkezten ziren. Haien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke” ziurtatu du Morok.

Idomenin zeuden pertsona ekonomia-baliabideak izandakoak dira. “Ez dutenak ezin dira pasa eta gerrate erdian gelditzen dira.” Turkiatik Greziara pasatzeko txalupara igotzeko pertsonako 1.000 euro ordaintzen zieten mafiei. Moro 15 urteko neska batez gogoratu da: “amarekin eta hiru ahizpa-anaiekin zegoen. Bakoitzak 2.300 euro ordaindu zituzten Greziako mafiarri muga pasatzeko. Baina ordaintzeak ez zuen esan nahi ailegatuko zirenik.”

Beste asko Idomenin daude. “Eta mugak irekiko direnaren esperantza dute. Hori niretako gogorrena da” aitortu du Urrizak. Urrizak errefuxiatu batzuen iritzia ere eman digu: “jakin izan bagenu Greziar egoera hori bizi behar genuela, ez ginatke Siriatik mugituko. Eta ez duzu imajinatzen Sirian egun bat nolakoa den.” Morok askoren iritzi zegoen gogoratu da: “hobe han bonbekin hiltzea, hemen hiltzea baino”. Haien eskuzabaltasuna ere nabarmendu Morok. “Dutena ematen dizute”. +www.guaixe.eus

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 • Altsasu

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA


948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Jose Antonio Goñi Jaka

Beti gure bihotzetan

**1953ko Etxarriko kintuek****Joxean Goñi Jaka**

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai

Josebaren eta Anderren lagunak**Oroigarriak****948 564 275****guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ/3 aste

HARREMANETARAKO

Telefona: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

Lana/ Negoziak**LAN ESKAINTZA**

Fisioterapia zentroa eskualdatzen da. Bi konsulta eta errehabilitazio gelarekin. Sakanan. Telefonoz ez da informatzen. Tel 627 650 916.

Higiezinak**ETXEBIZITZAK**

ERRENTAN EMAN

Etxe bat baratzarekin alokatzen da Bakaikun. 690 34 39 78 telefonora hots egin.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragan taberna-jatetxea alokatzen da. Zugar taberna zegoen etxea alokatzen da. Interesa duenak deitu zenbaki hauetara: 943 308 318 / 943 458 649.

Unanuko Denok Bat Elkarteak alokatzen da festetarako. Uztaialaren 1etik 3ra. Informaziorako deitu 671 61 89 99 telefonora.

Aitziber elkarteko taberna alokatzen da San Pedroko uztaileko eta Aitziberko abuztuko festetarako, uztailek 2tik 6ra eta abuztuak 14 eta 15. Esleipena enkante prozedura erabiliz egingo da, edozein bazkide lehentasunez hartze-ko eskubidearekin. Alokairuan irteeraren prezioa 2.000 €. Interesa duten guztiak, Aitziber elkartearen aurkezte behar dute, ekainaren 15ean, iluntzeko 20:00etan, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batean sartuta. Informazio gehiago aitziiberelkartea@gmail.com helbidearen bitartez.

Iturmendiko Aritzaga elkarteko taberna-jatetxea alokatzen da festetan. Uztaialaren 14tik 18ra. Interesatuta daudenak ekainaren 17an 19:00etan elkarteko bulegoan agertu beharko dira.

Denetarik**SALGAI**

Olazitako Coop. Transportes Sakanan plaza bat salgai erretiroagatik. Tel 670 27 64 57

Opatutakoak / galdutakoak**OPATUTAKOAK**

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta

nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Lehiaketak

Arbizuko play-back lehiaketa. Arbizuko festetan izanen da. Izena eman nahi duenak Arbizuko liburategian eman dezake izena.

Oharrak

Erburua Padel Txapelketa 2016. Non: Olazitako Erburua kiroldegia. Noiz: ostiral eta larunbata bitartean. Talde kopuruaren araberrako liga egingo da eta ondoren playoffak. Izen ematea: ekainaren 6tik 18ra (16 urtetik gorakoendako). Tel 948 564 512.

Gazteei jarririkako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek, 6.000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartzasunetik erantzun kolektibo emateko dinamika martxoan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrentea zabaldu dute: ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal Kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoekalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaakastola.org e-postara idatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxezia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartzasun proiektua deialdia bigarren urteaz aurkezte du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkezte du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkezte duen Sakanako elkarte bakarria dira. Fundazioak Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olazitarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxoan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patri) telefonoe-tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman

edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako

Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatzuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroz, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztria, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irrata zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxoan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionali, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxean eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzun eta

ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza .

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

JAIOTZAK

- **Amina Mbipil**, maiatzaren 31n Irurtzun
- **Marko Estarriaga Villarroel**, ekainaren 1ean Etxarri Aranatzan

EZKONTZAK

- **Egoitz Lopetegi Lopez eta Laura Luis Soto**, maiatzaren 21ean Lakuntzan
- **Raul Angulo Blanco eta Maria Rosario Latiegi Romero**, ekainaren 3an Irurtzun
- **Rafael Estarlich Garro eta Barbara Krawczak**, ekainaren 4an Irurtzun

HERIOTZAK

- **Rosa Goikoetxea Mendiluze**, ekainaren 4an Urdiainen

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

TRIATLOIA

ONDARROAN ETA PAISAIAN: Ondarroako Triatloian Eneko Iturbe 30.a sailkatu zen, eta Pasaia-Donibane Sprint Triatloian Mi-

kel Astiz 50.a sartu zen eta Iñaki Alvaro 53.a. **Kategoria txikikoak Antsoingo Triatloian aritu ziren.** +www.guaixe.eus

Kirola >>

Pilota

Andra Mari Pilota Txapelketako finalak

Larunbatean, 10:00etan, Lakuntzako pilotalekuan

112 neska-mutiko lehiatu dira atsendaldietan Andra Mari ikastolan jokatu den txapelketan, LH 1. mailatik LH 6. maila bitartean.

OLAZTIKO TXAPELKETA

Asteburuan 7 partida jokoan. Informazio gehiago: www.guaixe.eus

Finalak

Larunbatean, 10:00etan, **Lakuntzan:**

- 1.Ttikia:** Elorri Mendiñueta-Maialen Larraza / Auritze Beltza-Arhan Jimenez
 - 2.Ttikia:** Jon Unai Gonzalez-Izai Martinez / Xabier Etxabarri-Aimar Erdozia
 - 2.Ttikia:** Jon Mariñelarena-Manex Huarte / Beñat Ganboa-Unai Razkin
- Umeak:** Nahia Iza-Julene Orella / Eider Murugarren-June Astitz
Umeak: Enaitz Arregi-Kemen Zabalala / Manu Reparaz-Belatz Navarro
Kimuak: Oihana Jaka-Maddi Mariñelarena / Amaia Petriati-Alaitz Ulaiar
Kimuak: Pello Altelai-Gari Novoselsky / Iker Ijurko-Iraitz Imaz

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralar mendi lasterketa, nobedadeekin

Lehenengoz ibilbide luzea (24,7 km) eta motza (13 km) izanen dira. **Lasterketa solidarioa** ere izanen da, **Luciernaga elkartearen alde**

Igandean jokatuko da XIII. Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa. Zabalarre klubak antolatu du, hainbat entitate, talde eta babesleren laguntzarekin. Antzinako apustueta oinarrituta sortutako Guardetxe igoera lasterketaren tokia hartu zuen probak, ibilbidea luzatuz. Aurtentzen, nobedade moduan, bi ibilbide egiteko aukera egon da: ibilbide luzea, ohikoa (24,7 km, 1.114 m desnibel +), eta ibilbide motza (640 m desnibel +). Ibilbide luzea Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria izango da.

Izena emateko azken eguna

Gaur, ekainaren 10ean despedituko da izena ematea, 24:00etan www.lakuntza-aralar.com orrian. Erredakzioa ixteko garaian proba luzean 151 korrikalari eta laburrean 59 zeuden izena emanda. Aurreko urtean Unai Oriá (2:04:01) eta Leire Fernandez (2:29:02) izan ziren irabazleak, 148 korrikalarien artean.

Aukeran: 24,7 km edo 13 km



Korrikalari guztiak 9:30ean abiatuko dira Lakuntzako plazatik eta Atazarako igoeratik Guardetxera igoko dira (1.035 m), antzinako galtzadatik pasaz. Ibilbide luzea hautatzen dutenak Guardetxetik Albi eta Mugerdiñ barneratuko dira. Belokiko leporez joz (1.205 m) eta handik zuzen Unako putzura ailegatuz, gero Hirimugarrietako tontorrera (1.431 m, Aralarko tontorrik altuena) iritsi arte. Ondoren Lakuntzarako bidea hartuko dute Desako borda eta Pagomari (1.140 m) atzean utzita eta Aranguneko portutik jaitsiko dira. Aldiz, ibilbide motza hautatzen dutenek Guardetxe pista eskuinean utzita pagadian barna Larlungaineraino (1.103 m) iritsiko dira eta handik ekingo diote jaitsierari, Etxaaltxetatik pasaz eta Aranguneko portutik jaitsiz. Ibilbidean barna 5 kontrol eta 4 hornidura gune egongo dira eta bukaeran auzate ederera izango da korrikalari guztiendako. 80 pertsona baino gehiago ariko dira antolaketan.

www.lakuntza-aralar.com
 Lasterketari buruzko informazio guztia.

Sandra Sevillano, 02:26:30). Bigarrenak 100 euro eta trofeoa, eta hirugarrenek 50 euro eta trofeoa. Bestalde, lehen lakuntzarrek, lehen sakandarrek, lehen betaranoek, lehen juniorrek eta lehen promesak trofeoak jasoko dituzte. Ibilbide motzean, lehendabizikoek garaikurra eta produktu lotea jasoko dute, bigarrenak eta hirugarrenek eta kadetek garaikurra.

Luciernaga Elkartearen aldeko lasterketa

Lakuntza-Aralar mendi lasterketa abiatu ondoren, goizeko 10:00etan lasterketa solidarioa antolatu du Zabalarrek Nafarroako Asperger sindromea eta TEA duten pertsonen senitartekoak biltzen dituen Luciernaga elkartearen alde. Bertan, haurrek, helduek eta nahi duten guztiak hartu ahalko dute parte, plazari buelta bat ematea baita kontua. Dorsalak salgai daude tabernetan eta egunean bertan (2 euro).

Bezperan hitzaldia

Larunbatean, 19:00etan, Fermin Azanzak hitzaldia eskainiko du: "mendilasterketen prestakuntza eta indar entrenaendua onurak".

Pilota

Gorritik jantzi zuen txapela Irurtzunen



Seniorretan Yoldi eta Gorriti eta 22 urtez azpian Mugiro eta Agirre izan ziren XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako txapelak

Martxoaren bukaeran abiatutako XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako final handiak jokatu ziren larunbatean eta pilotazaleek puntako partidez gozatzeko aukera izan zuten. 22 urtez azpiko finalean Mugirok eta Agirrek jantzi zuten txapela eta seniorren 3. eta 4. postuen finalean Apezetxea eta Arratibel gailendu ziren. Seniorren mailako finala oso borrokatsu izan zen.

XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak

22 urtez azpian: Zudaire-Eskudero 13 / Mugiro-Agirre 22
Seniorren 3. eta 4. postua: Urkizu-Altuna 19 / Apezetxea-Arratibel 22
Seniorrak: Ongay-Tabar 16 / Yoldi-Gorriti 22

Azkenean txapela Uharte Arakile-ra joan zen, Yoldi eta Gorriti 16 tantotan utzi baitzituzten Ongay eta Tabar. Sari ematean Nafarroako Pilota Federazioko ordezkariak eta Nafarroako Kiroleta Gazteria Kontseiluko presidente Ruben Goñi izan ziren, besteak beste.

Arbizuk Herrien Arterkoari agur

Asteburuan Herrien Arterko Pilota Txapelketako hasierako ligaxkakoa 5. eta azken jardunaldia jokatu zen. Arbizu Barañainen kontra aritu zen eta bina berdindu zuten. Haurren mailan eta jubenetan gailendu zen Arbizu, eta kimuetan eta seniorretan, aldiz, Barañain. Doneztebe, Lizarra, Iruñea eta Bera sailkatu dira Herrien Arterko final dietarako.

Emaitzak: www.guaixe.eus

Mendi lasterketak

Sakandarrak bikain Euskal Herriko Erronkan eta Camille Extremen

Sakandarrak EH Mendi Erronkan (67 km, 3.600 m desnibel +)

Gizonak

1. Julen Mtz de Estibariz (Barrundia) 7:03:23
13. Jose Luis Beraza (Uhar.) 7:36:33
25. Aritz Munarriz (Etx.) 7:54:28
35. Joxea Maiza (Etx.) 8:01:36
98. Fidel Jimenez (Etx.) 8:58:03
185. Jabier Beraza (Irur.) 9:42:20
204. Roberto Jaka (Etx.) 9:49:58
205. Aitor Salinas (Etx.) 9:50:22
239. Ruben Moral (Irur.) 10:00:42
260. Iban Verdugo (Etx.) 10:07:45
319. Damian Andueza (Alts.) 10:29:04
322. Alberto Anton (Alts.) 10:29:18
344. Iñaki Morillas (Irur.) 10:41:08
347. Alberto Mtz de Lagran (Alts.) 10:42:11
376. Ion Zubiria (Alts.) 10:58:08
436. Sergio Goñi (Olaz.) 11:25:07
477. Felix San Roman (Alts.) 11:53:40

Emakumeak

27. Oihana Kortazar (Mutriku) 7:55:02
312. Arantza Larrañaga (Uhar.) 10:26:09



Korrikalariak, Fidel Jimenez tartean, Euskal Herriko Erronkan (67 km).

Sakandarrak Camille Extremen (31 km)

1. Hassan Ait Chaou 3:00:50
15. Aritz Ganboa 3:34:04
16. Ander Unzurrunzaga Iurrebaso 3:35:13
36. Francisco Javier Codon 3:49:05
91. Ander Unzurrunzaga Ganboa 4:10:24
108. Javier Noveleta 4:14:31
122. David Mutiolo 4:21:19
268. Fermin Zornoza 4:57:42
357. Francisco Javier Juango 5:46:51
369. Javier Bados 5:58:35

*Oharra: Sailkapenean ez zegoen korrikalarien jaioterriko daturik eta gerta daitezke norbait ez agertzea.

67 km-ko Ultra Trailean Beraza 13.a sailkatu zen eta Camille Extremen Ganboa 15.a eta Unzurrunzaga 16.a

Larunbatean jokatu zen, Leitzan, Euskal Herriko Erronka Ultra Traila (67 km, 3.600 m desnibel positiboa). 562 korrikalari osatu zuten proba eta Barrundiako Julen Martinez de Estibariz izan zen azkarrena (7:03:23). Soilik 15. segundotara ateratu zuten Iker Karrera amezketarrari (7:03:38). Proba bukatzeko zuten 16 sakandarren artean, Jose Luis Beraza iritsi zen lehena, helmugan 13.a iritsi eta gero (7:36:33). Probako bigarren betaranoa izan zen uhartearra. Emakumezkoetan Oihana Kortazar mutrikuarra gailendu zen (7:55:02). Arantza Larrañaga uhartearra 7. emakumea izan zen (10:26:09).

Camille Extreme

31 km-ko mendi lasterketa gogorra da Izaban antolatutako Camille Extreme, tartean Ezkaurre (2.045 m) igoberrekoa. 460 korrikalari hartu zuten irteera igandean eta 387 sailkatu ziren. Hassan Ait Chaouk atzera ere sekulako erakustaldia eman zuen eta bere hirugarren Camille irabazi zuen (3:00:50), Asier Larruzeta bigarrenari 16 minutu baino gehiago aterata (3:17:13). Emakumezkoetan Laura Sola izan zen txapelduna (3:48:30), Maria Zorrozar minutu pasako alde aterata (3:49:50). Sakandarrek lan bikaina egin zuten. Aritz Ganboa arruazuarra 15.a iritsi zen helmugara (3:34:04) eta Ander Unzurrunzaga etxarriarra 16.a (3:35:13).

Irristaketa**Ioseba Fernandez Espainiako Txapelduna**

100 metroan eta sprintean gailendu zen iturmendiarra

Asteburuan Espainiako Irristaketa Zirkuitu Txapelketa jokatu da Iruñeko Antoniuttin. Nafarroako selekzioa bikain aritu da eta 23 podium lortu ditu. Juniorrak, seniorrak eta masterrak lehiatu ziren. Tartean, Berriroere taldeko Ioseba Fernandez iturmendiarrak puntan jarraitzen duela erakutsi zuen. Fernandezek 100 metroan eta sprintean irabazi zuen.



Ioseba Fernandez, dominarekin.

Mendi txirrindularitza / BTT**Altsasu bikerren topaleku**

Altsasuko BTT Zeharkaldiaren 21. edizioa antolatuko du Barranka Txirrindulari Taldeak igandean, 9:00etan. Bi ibilbide daude aukeran: luzea, 46 km-koa eta laburra, 34 km-koa

Barranka Txirrindulari Taldeak antolatuta, igandean jokatu du 21. Altsasu BTT Zeharkaldiak. Taldeak Altsasuko Udaltzaren laguntza izan du eta Nafarroako Rural Kutxa, Selk, Sakana Optika, Nafarroako Gobernu, Diario de Noticias eta Iruña Comunicación Textil dira probako babesle nagusiak, beste hainbat babeslerekin batera. Txirrindularitza egutegian izen handia du Altsasuko proba ez lehiakorrek, eta antolakuntzak parte hartze handia espero du igandeko, 500-600 pertsonen ingurukoa. Izan ere, Euskal Herriko egutegian finkatuta dagoen proba da, Nafarroako probetan zaharrena. Helburua, betiko moduan, gure eskualdea erakustea eta gure paisaietan biziklerekin disfrutatzea da. "Etortzen denak disfrutatzea, hori da nahi

gurea. Normalean gure ibilbideak gustatzen zaizkie eta etortzen dena pozik doa" adierazi du antolakuntzako Julian Claverrek.

Izena ematea zabalik

Altsasuko BTT Zeharkaldirako gaur, ekainaren 10eko 12:00ak arte eman daiteke izena www.barrankatt.com web gunean (federatuek 18 euro, federatu gabekoei 22 euro, Barrankako bazkide federatuek 8 euro eta Barrankako bazkide ez federatuek 12 euro). Bestela, bihar, probaren egunean, 7:45etik 8:55era arte egin daiteke inskripzioa, Foru plazan. Guaixeko erredakzioa interako orduan 374 biker zeuden izena emanda. Aurreko urtean 451 txirrindulari aritu ziren.

Proban parte hartzera animatu dute

Antolatzailerak Altsasu BTT zeharkaldian parte hartzera animatu dituzte sakandarrak, "ibilbide ederak delako, pribilegiatua. Urtero

Bi aukera: 46 km eta 34 km

Bi aukera daude ibilbide luzea (47 km, 980 m desnibela) eta laburra (34 km, 550 m desnibela). Txirrindulari guztiak goizeko 9:00etan aterako dira Altsasuko plazatik. San Pedrotik barna Larasoleko azpialdera igoko dira, eta autobia azpiko pasabidetik, Lekuonatik, toboganetako pista hartuko dute, Sorozarretara heltzeko. Hortik, Orobera iritsiko dira, eta handik Urdalurra. Hemen bi ibilbideak banatuko dira. Ibilbide luzeak 10 km inguruko buelta bat emango dute, Irumugarantz joaz. Handik jaitsi egingo dira Beundara igotzeko. Bertan egongo da hornidura gune nagusia. Ibilbide motzekoak, aldiz, Urdalurretik zuzenean Beundara joango dira, 200 metro ibilita. Beundatik aurrera elkarrekin ariko dira guztiak. Txurrukopuntatik jaitsiera berezia egingo dute "Orain arte ez gara inoiz bertatik jaitsi. Kilometro t' erdi inguruko jaitsiera da, Urdalur urtegiko errepidera jaisten dena. Bikerrei izugarri gustatuko zaie" adierazi du Claverrek. Hortik aurrera Orobera sartuko dira - hornidura likidoa izango da bertan -, eta Zaparditik Cementos Portlanden atzeldera aterako dira. Buelt hartu eta Ameztiatik Geltoki auzora iritsiko dira, San Juan kaletik Foru Plazako helmugara joateko.

ibilbidean berrikuntzak sartzen saiatzen gara, ibilbidea aldatzen, jendea ez aspertzeko. Eta biker guztiak eskertzen dute hori". Dena ongi ateratzeko egunean bertan 100 pertsona ingurukuegingo dute lan. Antolakuntzak guztia antolatu ahal izateko babesleen laguntza eskertu du.

Opariak eta zozketak

Txirrindulariek kirol kamiseta teknikoak, Laket txistorra, Katealde pateak, Lacturale esne litroa eta Agrozumos etxeko produktua jaso dezakete. Horretaz aparte, hainbat sari zozketatuko dira txirrindulari guztien artean.

Atletismoa**Lasterbidean**

Antton Zelaia 10.a eta Maria Goikoetxea 3. emakumea izan ziren

1.000 korrikalari pasa aritu ziren Araian jokatu aldeko presoen aldeko lasterketa solidarioan. Proba nagusia (8,5 km) Aitor Mimenza (29:09) sartu zen lehena. Antton Zelaia urdiainderra 10. a sartu zen (32:04), probako 3. beteranoa. Maria Goikoetxea etxarriarra probako 3. emakume onena izan zen (38:59).

Sakandarrak Lasterbidean (8,5 km)

Gizonak

1. Aitor Mimenza (Elorrio)	29:09
10. Antton Zelaia (Urd.)	32:04
17. Fco. Javier Gomez (Alts.)	33:08
25. Fran Araña (Arb.)	34:19
32. Juan Mariñelarena (Alts.)	35:08
61. Axiar Larrion (Alts.)	37:25
65. David Oroz (Urd.)	37:39

Emakumeak

40. Ainhoa Lendinez (Elgoibar)	36:05
90. Maria Goikoetxea (Etx.)	38:59
170. Haizea R. de Alda (Alts.)	43:56
288. Isabel Pozueta (Alts.)	48:48
363. Olatz Azazeta (Alts.)	52:47

*Saillapen osoa: www.guaixe.eus

Txirrindularitza**Sakanari buelta bizikletan**

135 txirrindularik osatu zuten VI. Sakana Burunda txirrindularitza martxa

Larunbat goizean 135 txirrindularik ekin zioten Barranka Txirrindulari Taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako VI. Sakana Burunda txirrindularitza martxari, eguraldia lagun.

Txirrindulariek bi aukera zituzten. Ohiko ibilbidea, luzea (124 km), tartean Uharte Arakildik San Migelera igotzen zena, eta laburra (100 km), San Migelera igotzen ez zena. Gehienek, 85ek, aukera luzearen alde egin zuten. Tropel guztia batera aterazten. Lehenik eta behin, Ziordiraino joan ziren, bertan buelta hartu eta Olaztitik Altamira igo eta jaitsi egin zuten, zuzenean Etxarri Aranztera joateko. Handik Lizarragako katea igotzen eta Arbizutik jaitsi ziren, segidan Uharte Arakilerara heltzeko. Proba luzea hautatu zutenek San Migel igotzen eta ondoren Baraibartik

San Migelen Armendariz azkarrena

Sakana-Burunda proba ez lehiakorra da, baina Uharte Arakildik San Migelera iritsi ondoren igotzeko denborak hartzen dira. Aurtun azkarrena Falzesko Daniel Armendariz izan zen (33:33), baina ez zuen Carlos Palaciosen errekorra gainditu (30:27). Bigarrena Inigo Arellano altsasuarra izan zen (34:51). Sakandarren saillapena: www.guaixe.eus.

Oderitzera iritsi ziren eta Madotzeko portua jaitsi ondoren, Urdiainetara iritsi ziren, San Pedrotik barna Altsasura heltzeko. Aldiz, ibilbide laburreko Uharte Arakildik aurrera jarraitu zuten. Zuhatzuraino, eta han buelta hartu eta gero Urdiainera joan ziren, San Pedro-

tik Altsasura heltzeko.

Helmugan txirrindulariek paela bikaina bazkaltzeko aukera izan zuten. Gainera, oparia jaso zuten. Probaren antolakuntza bikaina nabarmendu zuten partaideek. 25 pertsona aritu ziren lanean guztia behar bezala antolatzeko.

Areto futbola

Aralar Mendik sekulako denboraldia egin du.

Aralar Mendi txapelduna

FS 5 Nafarroa txapelketako zilarrezko mailako txapelduna izan da Uharte Arakilgo taldea eta datorren denboraldian ohorezko mailan ariko da. Arbizu hirugarrena sailkatu da

Denboraldi borobila. Hori da Uharte Arakilgo Aralar Mendi areto futbol taldeak egin duena. FS 5 Nafarroa Areto Futbol Txapelketan parte hartu du Aralar Mendik, zilarrezko mailan, beste 12 talderekin batera - Cerveceria La Abadía, Arbizu, Bar Kayak, Veri, Zurriagazo, Tafa-

trans, APM Prevención, Utokan Futbol Factory, Tantic, Olite, Carcastillo eta Absolut-, eta 49 punturerekin liga irabaztea eta mailaz igotzea lortu du talde berdeak. Cerveceria La Abadía izan da bigarrena, 48 punturerekin, eta Arbizu hirugarrena, 47 punturerekin.

Uharte Arakilgo taldea zilarrezko mailako talderik erregularrena izan da, torneooko golegilerik handiena eta partida gutxiarik galdu dituena.

Motozklismoa**Urra Espainiakoan lehena**

Espainiako Supermotard Master 35 txapelketako liderra da olaztiarra

Igandean Espainiako Supermotard Txapelketako 2. proba jokatu zen, Badajozeko Talavera la Realen. Pilotuek hiru eremu osatu behar izan zituzten, 8 minutu eta 2 itzulikoak. Fernando Urra olaztiarrak hiru eremuak irabazi zituen. Lehenda-

biziko eta bigarren mangan, hasieratik lehena kokatu zen. Hirugarren mangan, ordea, lur eremuan eroriko izan zuen olaztiarrak. Baina azken posiziotik aurrekoak aurretik hasi ziren, lehen postuan bukatu arte. Espainiako Supermotard Master 35 txapelketako liderra da gidari olaztiarra.

Botxa**Finalen txanda****Iratxo Txapelketa**

Larunbatean, finalerdiak:
19:30ean: 1. postua / 4. postua
20:30ean: 2. postua / 3. postua
Igandean, finalak
19:30ean: 3. eta 4. postuak
20:30ean: Finala

Futbola

Kadeteen puntako torneoa bihar Etxarrin

Etxarri Aranatz, Osasuna, Real Union eta Danok Bat talde kadeteek torneoa jokatu dute bihar San Donato futbol zelaian, 15:30etik aurrera

Ikasturte bukaera futbol torneoarekin despeditzen du Etxarri Aranatz Futbol Taldeak. Aurten kadete mailako torneoak izango da eta larunbat arratsaldean jokatu da, San Donato futbol zelaian. Osasuna, Real Union, Danok Bat eta Etxarri Aranatz taldeetako kadeteak izango dira lehiatuko direnak. Lehenik eta behin bi finalerdi jokatu dira eta ondoren 3. eta 4. postuak eta final handia erabakiko dira. Torneoa jokatu den bitartean zer edan eta zer jan egongo da futbol zelaietako tabernan eta zozketak egingo dira.

Txirrindularitza

Erlojuaren kontrako Nafarroako eta Euskadiko Txapelketa Iturmendin

Bihar, larunbatean, 14:30etik aurrera jokatu da IV. Iturmendi Erlojupeko Trofeoa, Nafarroako kadeteen, juniorren 23 urtez azpiko eta eliteen Txapelketa, eta 23 urtez azpiko Euskadiko Txapelketa izango dena

Iturmendi puntako txirrindularien bilgune izango da bihar: IV. Iturmendi Erlojupeko Trofeoa dago jokoan. Orain arte kadete eta junior mailako txirrindulariek hartzen zuten parte aldi berean Nafarroako Erlojupeko Txapelketa zen proba honetan, baina aurten, aipatu bi kategoriaz gain, afizionatuak ere ariko dira, 23 urtez azpiko eta eliteen Erlojupeko Nafarroako Txapelketa baita ere izango baita Iturmendikoa. Eta hori gutxi ez



Maialen Aramendia 2015ekoan.

balitz, proba, aldi berean, 23 urtez azpiko Euskadiko Erlojupeko Txapelketa izanen da.

Bizikletara igotzen lehenak afizionatuak izango dira, 14:30ean. Txirrindulariak, minutu bateko aldearekin banaka aterata, 19,6 km osatu beharko dituzte. Jubenilak 16:00etan abiatuko dira (14 km). Kadeteak, aldiz, 18:00etan hasiko dira lanean eta 10 km izango dituzte aurrez aurre.

Eskolakoak Etxarrin

Igandean, 11:00etan, eskolen mailako San Kiriko Txirrindularitza Saria jokatu da, Etxarri Aranatzko Errotonda-Burundabiden.

Etxarriko

Kadeteen Torneoa

- 15:30ean: 1. finalerdia: Etxarri Aranatz - Osasuna
- 16:30ean: 2. finalerdia: Real Union - Danok Ba
- 17:30ean: 3. eta 4. postuak.
- 18:30ean: Final handia.

Padela

Olaztiko Erburua Txapelketarako izena ematea zabalik

16 urtetik gorakoek har dezakete parte Olaztiko Erburua Padel Txapelketan. Izena ematea zabalik dago, ekainaren 18ra arte. Erburua Kiroldegian edo 948 564 512 telefonoan. Txapelketa ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan jokatu da eta finala Olaztiko festetan izanen da.

Automobilismoa



Javier Goikoetxea, eskuinean.

Javier Goikoetxea eta Carlos Aldekoa txapeldun Villahozen

A ze nolako asteburuaz gozatu duten Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrik (Ford Fiesta R5+). Larunbatean Burgoseko Villahozeko Lur Gaineko Rallysprintean 2015eko garaipeña errepikatze aukera izan zuen bikoak. Eta igandean Madril-en El Molarreko Lur Gaineko Rallysprintean laugarrenak sailkatu ziren.



Ailetz Lasa bigarrena Euskadiko Txapelketan

Igandean kadeteen Euskadiko Txapelketa jokatu zen Gasteizen (60 km). Gastronomía Baska-Avia taldeko Jon Barrenexea izan zen txapelduna (1:34:48). 11 segundora tropeltxoa sartu zen, Burundako Quesos Albenizeko Ailetz Lasa buru zela. Aralarko Intersport Irabiako Josu Etxeberria 23. a sartu zen, bere taldekide Imanol Galarza 34.a, Beñat Etxezarreta 53.a, Javier Mitxaus 59.a eta Urko Gorriti 60.a.



Daniel Mugika garaile Altsasuko XXXI. Udaberri Trofeoan



Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta, igandean junior mailako XXXI. Udaberriko Trofeoa jokatu zen Altsasan, jubenil mailako Nafarroako Txapelketa (91 km). Txirrindulariek lantzen behar izan zuten Altamirako portua. Helmugara 14 taldeko tropeltxoak iritsi zen eta esprint estuan Combustibles Galdeanoko Daniel Mugika izan zen txapelduna (2:18:57). Translujan CC Mollet taldeko Daniel Melladok eta David Gijonek osatu zuten podiuma. Quesos Albeniz taldeko Alex Unzilla 10.a sailkatu zen, denbora berean. Bere taldekide Asier Etxeberria 13.a izan zen, Xabier Maiza 17.a, Hodei Zia 20.a eta Juan Riaño 30.a. Taldeka, Quesos Albeniz hirugarrena izan zen. Tartekako helmugan trofeoa Hodei Ziak irabazi zuen. Bestalde, larunbatean, Azkonan jokatuak afizionatuen Nafarroako Txapelketan Lizarteko Oscar Rodriguez izan zen lehena eta 23 urtez azpiko Nafarroako txapelduna. Rural Kutxa talde sakandarreko Iker Azkarate 5.a sailkatu zen, Josu Zabala 6.a, Sergio Rodriguez 13.a eta Odele Juango lakuntzarra 17.a. Josu Zabala elite mailako Nafarroako txapelduna izan zen. Eta igandean Rural Kutxako Iker Azkaratek irabazi zuen Markina-Xemeingo lasterketa.

Kiroldegia

Kiroltasun Sariak banatuta

470 partaide izan ditu kanpainak

Astelehenean Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatutako Gurasoak Entrenatzen kanpainako Kiroltasun Sariak banatu ziren. Gurasoek kirolean txalotzeko jokaera bat aipatu behar zuten eta arbuiatzeko beste bat, eta neska-mutikoek gai honen inguruko marrazki, komiki edo narrazioa egin behar zuten. Mank-eko Kirol Batzordeko buru Alberto Martinezek banatu zituen sariak, eta kiroltasunaren balioengarrantzia nabarmendu zuen. "Oso balorazio positiboa egiten dugu. 470 partaide izan dira. Haurrek eta gurasoek kirol baloreak barneratzen doazela ikusi dugu" adierazi du Amaia Gerrikagoitia teknikariak. Partaide guztiak gosarirako kiroltasunaren katilua jasoko dute.

Alberto Martinezek banatu zituen sariak



- 1. saria: bizikleta. Anne Gorritxo Urzelai (Andra Mari).
- 2. saria: patinak. Mikel Regil Fernandez (Zelandi).
- 3. saria: ur azpian ibiltzeko betaurreko, tubo eta aletak. Irune Mera Suarez (San Donato).
- 4. saria: futboleko baloia. Julen Larraza Salinas (Luis Fuentes).
- 5. saria: saskibaloiko baloia. Oihan Aldabe Salinas (Andra Mari).
- 6. saria: errugbiko baloia. Aritz Napal Huizi (Andra Mari).
- 7. saria: eskubaloiko baloia. Iratxe Lapuente Perez (Jesusen Bihotza).
- 8. saria: raketa. Izadi Barandiaran Leiza (San Donato).
- 9. saria: pala. Aiora Larraza Salinas (Luis Fuentes).
- 10. saria: eskupilotako pilota. Artzai Karasatorre Sureda (Andra Mari).
- 11. saria: xiba. Iraia Bakaikoa Olmedillo (Iñigo Aritz).

Non erabili

LURESU
ALTSASU
% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA
ALTSASU
%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA
IRURTZUN
Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA
ETXARRI ARANATZ
% 10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA
ALTSASU
Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA
ALTSASU
Produktua opari.

PINPILINPAUSA
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU
IRUÑEA
Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER
OLAZTI
Menu bereziarekin txupittoa doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

Dantza nagusi Galtxorratxen 10. urteurrenean

Larunbatean, 11:30etik aurrera Uharteko Arakilen elkartearen urteurrena ospatuko da. Dantzariak eta zanpantzarra ariko dira. Bazkaltzera 150 bat elkartuko dira

Uharteko Arakilen kultura mugitzeko asmoz herritar talde batek duela hamar urte sortu zuen Galtxorratx. Herri ondoko toponimo bat hartu zuten izentzat eta hala ekin zioten euskara taldea sortzeari eta kultura tailerrak antolatzeari. Inaki Retegei Martiarenak, Galtxorratx taldeko kideak, azaldu digunez, kultura arloa lantzean dantza taldea eta zanpantzar taldea sortu ziren. Hamarkada honetan gorabeherak izan dituztela aitortu digu: “orain bakarrik dantza taldea eta zanpantzarra ditugu”. Bi taldeak ere osasunez iritsi dira urteurrenera.

Zanpantzarra

Hamar urte hauetan taldean sartu-irtenak egon badira ere, zanpantzar taldeak aurrera egin du. Adin guztietako dozena bat kide dira gaur egun, emakumezkoak gehienak. “Berez zortzi bikote daude, baina bakarren batek huts egiten badu, besteak hartzen du. Ongi dago gehiago egotea”. Galtxorratx zanpantzarrek Uharteko Arakilen antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen du soilik: Olentzero, Errege eguna, ihoteak, festak... Salbuespena Irañetan aritu izan diren aldi bakanak izan dira.

Materiala erosteko berriki udalaren diru-laguntza jaso dute. “Bigarren eskuko materiala erosi genuen. Apurto ziren, konpondu genuen baina dagoeneko ez du balio. Fale berriak erosi ditugu.



Larruak eta ere aldatu nahi ditugu gero” adierazi du Retegei.

Dantza taldea

Adinez banatutako bi dantza talde ditu Galtxorratxek, txikiak (20 bat) eta handiak (12 bat). Azken horien irakaslea da Retegei bera eta duela hiru urtetik, berarekin ikasi duten batzuk dira txikien taldeko irakasleak. Dantzari guztiak uhartearrak dira, Gartzarongo neska bat ez beste. “Herri txikia izateko nahiko ongi”.

Dantzariak entseatzeko “nahiko txintxo” joaten direla azaldu digu Retegei. Larunbat goizetan entseatzeko dute txikiak eta helduek asteazken arratsaldean. Galtxorratx hama urteetan txikien dantza taldea hasi eta helduenera salto egin duenik bada. Batzuk eta besteek Euskal Herri guztiko dantzak ikasi eta dantzatzeko dituzte. Dantza egin ahal izateko musikariak lortzea “zailagoa” dela aitortu digu Galtxorratxeko kideak.

Egitaraua

11:00etan Orritz (Iruztun), Larratz (Burlata) eta Galtxorratx dantza taldeak, banaka ordu erdiz plazan.

12:30ean Dantzariak, fanfarrea, erraldoiak eta joaldunak kalejiran.

13:30ean Dantzaldia, plazan.

14:30ean Herri bazkaria.

17:00etatik 22:00etara Dantzaldia Elizagoien Ahizpak eta Gabenara taldearekin.

*Egun guztian Sakanako artisauen azoka.

Haurrendako kontzertua

Igandean, 18:30ean, Etxarri Aranazko Andra Mari ermitan Etxarriko abesbatza txikia

Ikasturtea despeditzeko kontzertua eskainiko du Etxarriko abesbatza txikiak etzi Jasone Razkin eta Elena Garziandiaren zuzendaritzapean. Azken horrek esan digunez, “kontzertu dibertigarria, ezberdina izanen da. Haurrei zuzendutakoa da, ausartagoa.” Kantuan 6 eta 14 urte bitarteko 59 haur ariko dira. Gehienak, 40 bat, etxarriarrak dira. Baina haiekin batera Lakuntzako, Arbizuko, Bakaikuko eta Altsasuko haurrak ere badaude.

Garziandiak aitortu digu abeslarien baratza badagoela. “Txiki-

kien kantu prestakuntza da helburua, Etxarri Aranazko abesbatzara jauzi egin dezaten”. Garziandiak jakinarazi digunez, eguberrietan handien kontzertuko obra batzuk kantatu zituzten txikien abesbatzako bost kide nagusiak. Eta hala egin dute ondoren ere, “esaterako Erriberriko emanaldian hiru abesti kantatu zituzten. Halakoetan nagusien ostiraleko kontzertuaren zati batera joaten dira. Pixkanaka sartzen dira”, esan digu Garziandiak. Etxarriko abesbatza txikian sartu nahi duena, igandeko kontzertuaren ondoren zuzendariegana hurbiltzea besterik ez du egin behar.

+www.guaixe.eus



Festak iragartzeko kartel lehiaketa

Bakaikuko kultura batzordeak festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Aurkeztutako lan guztietan honako testua egon beharko du: Bakaikuko festak 2016 uztailaren 22tik 26ra. Lehiaketak bi maila ditu: 7 urte bitartekoena eta 14 urte artekoena. Lanak, gutun-azal baten barruan, San Joan egunean aurkeztu daitezke, opila jasotzerakoan. Hautatutako lanak festen egitarauko azalean argitaratuko da. Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, bestalde, festetan izanen da ikusgai.

Festetarako kartel bila Olaztin

Santa Ana festak iragartzeko Olatzagutiko Udalak kartel lehiaketa antolatu du. Kartelean honako testua agertu beharko da: Santa Ana 2016. Olaztin. Uztailaren 23tik 26ra. Del 23 al 26 de julio. Edozein teknika erabiltzeko aukera izanen da. Lanak, A3 tamainan, plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira udalategian hilaren 20ko 14:00ak baino lehen. 3 maila izanen dira: 11 urte bitartekoak, 12 eta 14 urte eta 15 urtetik gorakoak. Maila bakoitzeko sari bana emanenda, 50, 100 eta 150 eurokoa.

bazterretik

Aritz Viñas

Udako musika

Kaixo lagunok, gaurkoan gauzak ezberdin egiteko gogoekin nator, eta uda gainean dugunez, talde, abesti eta estilo ezberdinak gomendatuko dizkizuet uda goiz, arratsalde eta gauetarako.

Pertsonalki udan denbora dudanean, gehien gustatzen zaidan gauzatariko bat lorategi batean lagunekin biltzea da, eta bertan gitarra

bat eta kaxoi, djembe edo beste edozein tresnarik baldin badago, gauza ezin da hobera joan. Beraz, nire gustuen arabera talde batzuk eta hauen abestiak gomendatuko dizkizuet. Egunari hasiera gogotsu bat emateko adibide batzuk hauek dira, estilo oso ezberdinekoak baina denak dira baliagarriak.

Alde batetik **Caravan Palace** elektro swing taldea daukagu. Hauek swing musikari buelta bat ematen diote eta doinu elektronikoak sartzen dizkiote. Horrela, entzuteko abesti oso errazak eta erritmo biziak egiteko oso egokiak direla esango nuke. Ondoren **Los de marras** taldearen “Hoy” abestia gomendatu-

ko dizuet. Balentziako rock talde honen abesti hau ikaragarria da eguna ondo eta gustura hasteko. Batakada doinuak aurkituko ditugu abestian zehar eta letra bikaina da; umore eta kritika soziala nahastuz lortzen dute hori.

Jarraitzeko, eta bazkaltzeko ordua ailegatzeko denean, lasaitasun pixka bat bilatzeko asmoarekin beste talde estilobatzuetara jotzeagustatzen zait, baina batez ere talde hauek akustikoan egindako lanetara. Ordu hauetan hegoalderantz jotzea gustatzen zait, eta rumbadoinuen bilanoa. Hau lortzeko **El canijo de Jerez** jartzen dut behin baino gehiagotan, **Los delinquentes** taldearen abeslariak bakarka egindako ibilbidea oso poli-

ta iruditzen zaidalako eta haiek deitutako “garrapatero” estiloa osogustuko dudalako. Hemen rumba doinuak rock-arekin nahastuta aurkituko ditugu, oso letra freskoak eta erritmo bikainak.

Rumba doinuak funk musikarekin nahastuta ere aurkitu ditzakegu, eta horretarako **Juanito Makande** entzuteko joan beharko dugu. Bere bakarkako ibilbidean Makande El canijo de Jerez baino lasaigoa aurkituko dugu, baina **Los Kamikazes** taldearekin jotzen duenean funk musikak eta inprobisazioak hartzen dute protagonismoa.

Arratsalde partean eta gaua ailegatu arte, igerilekura edo menditik buelta bat emateko aukera bal-

din badut niri giro lasaia aurkitzea gustatzen zait. Hori lortzeko jartzen dudana lehenengo taldea **Iseo** taldea da. Talde honen abeslariak transmititzen duen lasaitasuna eta armonia kristona da, eta gainera ahots ikaragarri horri jarraitzeko talde bikaina du atzetik.

Arratsalde mugituago bat nahi baldin badut nire belarriak entzungo dutena **Blues Pills** taldea izango da. Indar handiko taldea da, aurretik ere aurkeztu nizuen talde hau eta nik oraindik ezin izan ditut ahaztu. Horrelakoa da udan nire eguneroko dosia, espero dut honek zuen uda egunetarako laguntza moduan balio izana, talde hauekin uda osoa aspertu gabe pasa dezaket nik.

Tabernaren Acantilado zinemetan



Helena Tabernaren azken filma, *Acantilado*, ostiralean mustu zen estatuko 66 aretotan. Lucia Etxeberriaren *El contenido del silencio* liburuan inspiratutako lana da. Haren gidoia altsasuarrak berak, Andres Martorellek eta Natxo Lopezek idatzi dute. Kanariar Uharteetan sekta batek Cordelia gaztea bereganatzen du. Zenbait hilabete beranduago bere anaia Gabriele kanarietan sekta batean izandako talde-suizidio baten berri jasoko du. Arreba txikiena da eta urteetan ez du ikusi. Gabriel irlara joanen da, ikertzera.

Emakumezkoen erresistentziak grabatuta

Hilaren 15era arte Olatzagutiko Kamiogaina jubilatuta elkartean

Mujeres grabando resistencias kolektiboa 14 emakume mexikarrek osatzen dute. Emakumezkoen diskriminazioaren eta indarkeriaren kontra ari diren beste emakumezko batzuen eta euren borroken eta proposamenen indarra islatu nahi dute. Horrela munduko hamaika milioi emakumerekin egiten dute bat. "Borrokari-zezagatik eroa deitzen badizute ere, borrokatu!"

Kolektiboko 14 emakumezkoek 2014ko garilean #vivas nos queremos kanpaina grafikoa zabaltzen hasi ziren Mexikon eta sare sozialetan. Proiektuaren xedea izan zen emakumezkoen kontrako bortizkeriaren eta feminizidioaren kontra eta autodefentsarako eskubide zilegiaren aldeko grafikak sortzea, mezu argi, ulergarri eta tinkoak emanez. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Erritmikoko gimnastak abesbatzaren doinura

Larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Ikuskizun horrekin despidituko da Iskizak larunbateko, 15:15etik aurrera, antolatutako erritmikoko festa

Iskiza Sakana gimnastika erritmikoko klubak eta Erkudengo Ama abesbatzak elkarrekin eskainiko duten ikuskizunari Fusion arte izenburua eman diote. Abesbatzaren kantuen erritmora koreografiak egingen dituzte Iskizako kideek Iortian. Aurreneko kantuan abesbatzak Hodei Alegre musika eskolako perkusio ikaslearen laguntza izanen du. Sarre-raz kultur gunean bertan eskuratu daitezke.

Gimnastika erritmikoko festa hartuko du Altsasuko kultur gune pareko plazak bihar 15:15etatik aurrera (eguraldiak lagunduko ez balu, Burunda frontoiak). Sakana gimnastak eta beste ume batzuk abiaraziko dute ospakizuna:



na: gimnasia erritmikoko aparatuekin jolasteko aukera izanen dute, dantza koreografiak egingen dituzte, jantziak argazkiak ateratu, jolastu, makilatu eta beste askorako aukera izanen da. Festa denez, ongi pasatzeko aukera izanen dute parte hartzaileek. Bi orduren ondoren, 17:15ean, Iskiza Sakana klubekoek Burunda frontoian ikasturte akaberako erakustaldia eskainiko dute.

Olatzagutia, pintoreendako modelo

Pintura azkarreko lehiaketako bederatzigarren edizioa domekan izanen da

Olatzagutia, inguruak edo jendea. Gai horietako bat aukeratuta Olatzagutiko pintura lehiaketan parte hartzen duten margolariak koadroa osatu beharko dute. Gazte eta helduen mailakoek 9:00etatik 18:00ak arte izanen dute lana aurkezteko epea. Haurrak, berriz, 10:00etatik aurrera hasiko dira margotzen.

Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketan parte hartu nahi dutenek oraindik izena emateko epea zabalik dute. Gaur bertan udaletxeko bulegoan eman dezakete izena (948 562 446, 10:00etatik 14:00etara) edo kultura@olazti.com e-postan, IX. pintura lehiaketa aipatuz. Domekan, berriz, kultur etxean 8:00etatik 9:00ak arte eman ahalko da izena. Haurren mailan aritzeko epea atzodespiditu zen. Informazio guztia: www.olazti.com.

Euskarazko sormenari saria

barreko ikasleen artean euskarazko sorkuntza sustatu asmoz, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak aurten ere Maria Markotegi saria antolatu du. Ilustrazioa, narrazioa, poesia eta komiki sailetan aurkezten diren euren lanak ikasleek (ilustrazio sailean Lehen Hezkuntzako 4. maila bitarteko haurrek parte hartu zuten, bi mailatan banatuta).

Guztira 986 lan aurkeztu ziren Maria Markotegi sariketara: 679 ilustrazio sailean, 143 narrazio sailean, 60 poesia sailean eta 104 komiki sailean. 26 sarituen artean saritan 1.450 euro banatu zituen Eus-



kara Zerbitzuak astelehenean. Gainera, 5 pintura zorro banatu zituen. Parte-hartzaile guztiek, gainera, jaso dute oparitxo. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



Maila	Idazlea	Herria	Idazlana	Saria
1. maila (A1 eta A2)	Eneko Pagola Azkarate	Anotz	Lehenengo hasiera	Liburu sorta
	Alberto Urkixo Artola	Altsasu	Gure altxorra	Liburu sorta
2. maila (B1)	Pili Rellan Bautista	Altsasu	Uso mezularia	Liburu sorta
3. maila (C1)	Joakina Zubiria Galartza	Altsasu	Gure amonaren etxea	Liburu sorta
	Jose M ^a Rodriguez Mazkarian	Altsasu	Izorratuta geratu nintzen	Liburu sorta

Maila	Saria	Idazlea	Ikastetxea	Herria	Idazlana
Poesia saila					
LH 5. eta 6.	1. 50€	Gorka Gasco Claver	Zelandi IP	Altsasu	Mundua
	2. 40€	Nahia Miguel Goikoetxea	Zelandi IP	Altsasu	Hondartzan
DBH 1. eta 2.	1. 70€	Willy Ismael Torres Lucero	Jesusen Bihotza	Olazti	Nor zara?
	2. 60€	Vladimir Popa	Altsasu BHI	Olazti	Ene bixotza
	2. 60€	Iruñe Lizarraga Ibañez de Opakua	Altsasu BHI	Altsasu	Denbora
DBH 3. eta 4.	1.	Hutsik			
	2. 80 €	Carla Benitez Cheza	Jesusen Bihotza	Urdiain	Ordenaren garrantzia
Batxilergoa eta...	1. 110€	Idoia Granizo Uribarrena	Altsasu BHI	Altsasu	Bizhitza
	2. 110€	Ane Palomo Jaka	Altsasu BHI	Altsasu	Negua
Narrazio saila					
LH 5. eta 6.	1. 50 €	Andrea Ihaben Remírez	San Migel	Uharte	Ipotxa eta liburu magikoa
	2. 40 €	Hegoi Legarra Marcos	Zelandi IP	Altsasu	Nola sortu zen pintxoa?
DBH 1. eta 2.	1. 70€	Naroa Carrasco Macho	Altsasu BHI	Altsasu	Ur bila
	2. 60 €	Zuriñe Serrano Etxeberria	Atakondoa	Irurtzun	Posdata: maite zaitut
DBH 3. eta 4.	1. 90 €	Ekain Alegre Gil	Altsasu BHI	Altsasu	Balearen bila
	2. 80 €	Andrea Imatz Azkargorta	Jesusen Bihotza	Ziordia	Bidegabeko haurtzaroa
Batxilergoa eta...	1.	Hutsik			
	2. 100 €	Naroa Legarra Marcos	Altsasu BHI	Altsasu	Zergatik?
Komiki saila					
LH 5. eta 6.	1. 50 €	Izadi Barandiaran Leitza	San Donato / Koldo Arnantz	Bakaiku	Orka taldea
	2. 40 €	Ander Villalobos Hernaz	Zelandi IP	Altsasu	Batu zeruan!
DBH 1. eta 2.	1. 70 €	Uxue Biain Goñi	Andra Mari / Koldo Arnantz	Etxarri	Ezinezko maitasuna
	2. 60 €	Iraia Pacheco Gonzalez	Atakondoa IP	Errotz	Orreaga
	2. 60 €	Naroa Carrasco Macho	Altsasu BHI	Altsasu	Felixiano eta Pankraxioren desbenturak
DBH 3. eta 4.	1.	Hutsik			
	2.	Hutsik			
Batxilergoa eta...	1. 110 €	Aitor Bengoetxea Larunbe	Altsasu BHI/ Koldo Arnantz	Altsasu	Nire opor onenak
	2.	Hutsik			

Euskaltegiko ikasleak eta Mintzakideak

Haiek ere Maria Markotegi sariketan euren atala dute. Ikasitako hizkuntzarekin sormen lanak sortze-

ko gonbidapena egin zuten Euskara Zerbitzuak eta lehiaketara 56 lan aurkeztu ziren: 1. mailan 29; 2. mailan 11 eta 3. mailan 16. Monika Etxebarria eta Maria Luisa Zelaia izan ziren lehiaketako epaileak.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 65%	euria: 50%	euria: 15%	euria: 30%	euria: 60%	euria: 35%	euria: 45%
Min: 12 Max: 16	Min: 11 Max: 17	Min: 10 Max: 20	Min: 12 Max: 18	Min: 11 Max: 15	Min: 10 Max: 16	Min: 9 Max: 15

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	30	9.5	4.1
Etxarri A.	29.2	8.5	9
Altsasu	27	10.5	5.8
Aralar	22.2	6.4	4.6
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
12	20	27	4

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Olatz Irizar

Axioaren lagunak ekimeneko kidea

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



Axio dokumentaleko sustatzaileetako batzuk. ENARA INSAUSTI.

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Sortu zurea!

1. Nor zen Axio?
Axio ez du aurkezpen askorik behar. Bi urte pasa dira Axio utzi gintuenetik. Jaiotzez arbizuarra zen, baina ezkondu eta Ziordian 26 urtez bizi izan zen. Oso eza-guna zen beti laguntzeko prest zegoen pertsona bat zelako, aizkoran ibiltzen zen, bazkariak egiteko ohitura handia zuen.

2. Noiz pentsatu zenuten dokumentala egitearen ideia?
Arbizuko Monika Etxebarriari bururatu zitzaion eta guri proposatu zigun. Axio bere bizitzako azken lau urteetan ELA izeneko gaixotasuna sufritu zuen, oso gogorra dena eta behar asko dituen. Gaixo zegoela, Axioaren lagunak ekimena sortu genuen eta honekin diru bilketa eta elkartasun jai erraldoi bat abian jarri genuen. Bi elkartasun egun egin genituen, batean Sakanako kultur eragileak eta 800 pertsona bildu zituen bazkaria antolatu genuen, eta beste alde batetik rock kontzertua egin genuen.

3. Dokumentalarekin aurrera egitea noiz erabaki zenuten?
Hil eta berehala zalantzak sartu zitzaizkigun, omenaldia egin, ez egin. Guri iruditu zitzaigun, eta batez ere familiarri, gaixotasunaren zoritxar horren erdian Axio elkartasun hori guztia jaso eta bizi izan zuela. Sakanak erakutsi egin ziola zer sentitzen zuen. Hortik hilabete batzuetara Monika Etxebarriari proposamenarekin etorri zen. Familiarekin ere hitz egin genuen, eta erabakia hartu zen.

4. Noiz bihurtu zen errealitate dokumentala?
Horrelako elkartasuna sortu duen pertsona bat ezin da ahaztu, bere familiak, eta ezagutzen genuenok ez dugu sekula ahaztuko. Baina belaunaldi berriek ez dute ezagutuko. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zitzaigun Axio emandako guztia laburbiltzen zuen euskarri bat opari bat izango litzatekeela. Egungeroz eta jende gutxiago dago gauzak musutruk egiten dituenak, eta ideia horri tiraka hau dena aurrera eramatea erabaki genuen.

5. Noiz hasi zineten grabatzen?
Dokumentalaren ideia abendua aldera erabaki genuen. Grabaketa lanak beranduago hasi egin ziren, baiezkoa izan genuenean Enara Insaustik egituratu zuen dena. Guk nahi genuena baino pixka bat gehiago luzatu egin da grabaketa prozesua. Hasierako asmoa lehen urteurrenean bukatuta egotea izan zen, baina atzertu egin da.

6. Non egin dituzue grabazioak?
Sakanako jende askorekin egin dira grabazioak, baina hemendik kanpora ere atera dira grabaketak. Axio Sakanaz aparte, oso eza-guna zen Euskal Herrian.

7. Nola egin zenuten dokumentala abiatzeko diru bilketa?
Crowdfunding bidez egin genuen diru bilketa. Duela hilabete batzuk prentsan ohar bat atera genuen aurkezpena Axioaren bigarren urtemugan eginen genuela jakinarazteko.

8. Nola egituratu duzue?
Axio ezagutu genuen pertsonen testigantzen bidez egin dugu. Hunkigarria izan behar zela bagenekien, baina ez genuen tristurarekin lotu nahi. Bere bizitzaren bukaeratik hasi egiten gara, momenturik tristeena alegia, eta pixkanaka-pixkanaka bere gaztegaraira, haurgaraira iritsi gara. Bukaera alai bat eman nahi genion, azken finean bere bizitzaren kontakizun bat egin dugu. Elkarrizketak jende askorekin egin dituzte, Axioaren familia, Axioaren lagunak ekimenekoak, Arbizuko bere koadrila, lagunak, soldadugaraiok lagunak, aizkolari asko, Arbizuko jendea...

9. Nor izan da gidoilaria?
Gidoia eta eta dokumentalaren egitura Ainara Insaustik egin du eta edizio lanetan Xabier Unanua aritu da. Musika Peio Reparazek egin du eta Axioaren alaba Irati Floresek parte hartu du. 40 minutu inguru irauten du.

10. Estreinaldia gaur duzue, ezta?
Bai, gaur, Ziordiko txipudian, eguraldiak laguntzen badigu behintzat. 21:00etan merienda eginen dugu musikarekin lagunduta, eta horren ondoren dokumentala ikusteko aukera izanen dugu.

11. Aurrestreinaldia egin duzue dagoeneko?
Bai, lanean agertzen diren pertsonendako egin genuen, familia eta ingurukoekin. Batez ere familiarri, bere intimitatean dokumentala ikustea garrantzitsua zela uste genuen.